

**UDAL ORDENANTZA, HIRI-IZAERAKO BIDE PUBLIKOEN ERABILERA,**  
**TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEN DUENA.**

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eskumena.
  2. artikulua. Erregulazioaren helburua.
  3. artikulua. Lurralde-eremua.
- I. TITULUA: HERRI BARRUKO BIDEETAKO TRAFIKOAREN ETA ZIRKULAZIOAREN ANTOLAKETAZ
- I. KAPITULUA.- PRINTZIO OROKORRAK:
4. artikulua. Legeria orokorraren zuzeneko aplikazioa.
  5. artikulua. Trafikoa antolatzeko eta kontrolatzeko neurriak.
- II. KAPITULUA. JOKABIDE-ARAUAK
6. artikulua. Oztopoak bide publikoan.
  7. artikulua. Seinalizazioa.
  8. artikulua. Geratzea.
  9. artikulua. Aparkatzea.
  10. artikulua. Oinezkoen esparruak.
  11. artikulua. Bizitegi-kaleak.
  12. artikulua. Ibilbide berdea.
  13. artikulua. Garraio publikoaren geralekuak.
  14. artikulua. Zamalanak.
  15. artikulua. Gordetako erreiak eta bideak.
  16. artikulua. Abiadura.
  17. artikulua. Zirkulazioa.
  18. artikulua. Zirkulatzeko edo aparkatzeko baimen bereziak.
  19. artikulua. Lineaz kanpoko garraioa.
  20. artikulua. Erabilera debekatuak bide publikoetan.
  21. artikulua. Lehentasunezko bideak, zirkulazio handikoak edo arreta berezikoak.
- II. TITULUA. ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA ETA MAILAKATZEA; EZAR DAITEZKEEN ZIGORRAK.

## I. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA MAILAKATZEA

22. artikulua. Arau-hausteen kontzeptu orokorra.

23. artikulua. Tipifikazioa.

## II. KAPITULUA. EZAR DAITEZKEEN ZIGORRAK.

24. artikulua. Arau hausteak eta zigorrak.

## III. TITULUA: KAUTELAZKO NEURRIAK.

### I. KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA ERRETIRATZEA

25. artikulua. Ibilgailuak ibilgetzea.

26. artikulua. Bide publikotik ibilgailuak erretiratzea. Erretiratzeko arrazoiak.

27. artikulua. Erretiratzea bertan behera uztea.

### II. KAPITULUA. IBILGAILUA IBILGETZEAGATIK, ERRETIRATZEAGATIK ETA BILTEGIRATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK.

28. artikulua. Tasak kitatzeko araubidea.

## IV. TITULUA. ABANDONATUTAKO IBILGAILUAK.

29. artikulua. Bide publikoetan abandonatutako ibilgailuak.

30. artikulua. Prozedura.

31. artikulua. Ibilgailuen udal gordelekuan.

32. artikulua. Abandonatutako ibilgailuak desegitea.

## V. TITULUA. PASABIDEAK BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUAK ORUBEETARA ETA ERAIKINETARA SARTZEKO.

### I. KAPITULUA. PASABIDEAK ETA APARKALEKUEN ERRESERBA BEREZIAK.

33. artikulua. Kontzeptua.

34. artikulua. Iraupena.

35. artikulua. Pasabide-motak.

36. artikulua. Titularrak.

37. artikulua. Emakidaren izaera.

38. artikulua. Pasabidea emateko arrazoiak.

39. artikulua. Aparkalekuen erreserba bereziak.

40. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

41. artikulua. Pasabidearen baimena ematea.

42. artikulua. Pasabideen baldintzak.

43. artikulua. Titularraren betebeharrak.

44. artikulua. Baliogabetzea.

II. KAPITULUA. Aparkatzeko lekuak gordetzea.

45. artikulua. Aparkatzeko lekuak gordetzea.

VI. TITULUA. ZIGORTZEKO PROZEDURA.

KAPITULU BAKARRA. ESPEDIENTEEN INSTRUKZIOA.

46. artikulua. Instrukzio- eta zehapen-organo eskudunak.

47. artikulua. Espedienteak eskumena duen Administrazioari helaraztea.

48. artikulua. Baimenak etetea eta erretiratzea eta puntuak kentzea.

49. artikulua. Zigor ebazpenen kontrako errekurtsioak.

50. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

51. artikulua. Agintaritzaren Agenteen betebeharrak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

I. Eranskina. Definizioak.

II. eranskina. Oinezkoen guneak.

III. eranskina. Zigorren taula.



2008ko maiatzaren 26ko udal osoko bilkurak hasierako onarpena eman zion hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzari; jendaurrean utzita eta behin betiko onarpena jaso ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua aplikatuz, Ordenantza horren testu osoa jendaurrean jartzen da.

339/90 Lege Errege Dekretuaren 7-b) artikulua ezarritakoaren arabera, Ordenantza hau ematen da udal araudia indarrean dagoen araubidera egokitzeko asmoz, eta aldi berean jasoz, bide publikoen antolaketari eta segurtasunari eta bideok modu zuzenean erabiltzeko moduari eragiteagatik, erregulazio-helburu bakar baten barrukotzat hartzen diren arau guztiak barneratuta.

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Eskumena.

Ordenantza hau ematen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak Trafikoaren eta Zirkulazioaren arloan udalari ematen dion eskumenaren arabera, bai eta Trafikoari, motordun ibilgailuen Zirkulazioari eta bideko segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua onesten duen martxoaren 2ko 339/1990 Lege Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera ere.

### 2. artikulua. Erregulazioaren helburua.

Ordenantza honen erregularizazioaren xedea da herriko bideen erabilera arautzea trafikoari dagokionez, eta orobat trafikoa antolatzea, zaintzea eta kontrolatzea, arau-urratzeak salatzea eta zigortzea, ibilgetzeko kautelazko neurriak hartzea, eta ibilgailuak bide publikotik erretiratzea eta biltegitratzea.

### 3. artikulua. Lurralde-eremua.

Ordenantza honen aginduak Eibarko udal-barrutiko herri-bide guztietan aplikatu ahal izango dira.

## I. TITULUA: HERRI BARRUKO BIDEETAKO TRAFIKOAREN ETA ZIRKULAZIOAREN ANTOLAKETAZ.

### I. KAPITULUA.- PRINTZIPIO OROKORRAK:

#### 4. artikulua. **Legeria orokorraren aplikazio zuzena.**

339/90 LED eta haren erregelamenduzko xedapen guztiak zuzenean aplikatzekoak izango dira, eta horri Udal Ordenantza honetan jasotakoa gehituko zaio osagarri legez.

#### **5. artikulua. Trafikoa antolatzeko eta kontrolatzeko neurriak.**

5.1. Udalak, trafikoa antolatzeko egokitzat jotzen dituen neurriak har ditzake, ibilgailu edo oinezko guztien edo ibilgailu edo oinezko batzuen zirkulazio-baldintzak betiko edo aldi baterako aldatuz, murriztuz edo debekatuz eta zamalanak edo pertsonen edo merkantzien garraioa ezarriz, berrantolatuz edo arautuz.

5.2. Udaltzaingoak aldatu ahal izango du hiriaren tokiren bateko zirkulazioaren antolaketa eta/edo pertsonen edo ibilgailuen leku jakin batzuetarako sarbidea; horretarako behin-behinekoz, beharrezkoak diren seinaleak ipini edo kendu ahal izango ditu eta behar diren neurriak hartu zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatzeko.

5.3. Udaltzainek emandako aginduak, eta, hala badagokio, Aparkalekuetarako Kontrol Zerbitzuaren zainzaileenak, lehenagotik dagoen beste edozein seinale edo araturen gainetik egongo dira aparkatzerakoan eta pertsonak, ondasunak edo ibilgailuak zirkulatzerakoan edo garraitzerakoan.

5.4. Udaltzaingoak emandako aginduei desobeditzea, arau-hauste astuntzat zigortuko da. Ez obeditzeaz gain, kooperazio falta badago, iranka edo mehatxuka ibiliz gero, arau-hauste oso astuntzat zigortuko da.

5.5. Udalak, aldi baterako debeka dezake ibilgailuak zenbait gunetan aparkatzea, baldin eta gune horiek konponketa-lanak egiteko, seinaleztatze, mantentzeko edo garbitzeko okupatu behar badira. Horretarako, gune horiek mugatu egingo dira eta debekuaren seinalea gutxienez 24 ordu lehenagotik jarrita egongo da. Seinale horietan, debekuaren arrazoia eta debekua noiz hasiko den adieraziko da.

5.6. Jardueraren bat antolatzen duen pertsonak edo erakundeak, jarduera egiteko jarritako eguna baino hiru lanegun lehenago eskatu behar du baimena. Eskabidea eskaera normalizatu batean egingo da; bertan, okupazioaren arrazoia eta iraupena aipatu behar dira, baita plano-krokis bat jaso ere, okupatu behar den lekua seinalatuko duena .

5.7. Aldez aurretik bidezkoa den espedientea izapidetuta, eskatutako baimena emango da. Baimenean adieraziko da zeintzuk diren hartu beharreko

segurtasun-neurriak eta eskatzaileak jarri behar dituen bide-seinale bereziak, baimenak noiz arteko iraupena duen eta eskatzaileak zer baldintza bete behar dituen.

5.8. Baimena eskatu den egunerako ebazpenik ez bada jakinarazi, eskaera egin duenari baimena ematen edo ukatzen duen ebazpenik ez bazaio heldu, bere eskabideari ezetza eman zaiola ulertu beharra du.

5.9. . Erreserba-baimenak edo aparkatzeko debekuak eragindako gunean seinaleztatu ondoren aparkatzen duten ibilgailuak salatu egingo dira bidegabe aparkatzeagatik, eta garabi-zerbitzuak kenduko ditu. Zerbitzu hori erabiltzeagatik sortutako gastuak ordaindu beharko dituzte.

5.10. Lekua gordetzeko seinaleak ipintzerakoan zeuden ibilgailuak, seinalea ipini eta 24 ordura oraindik leku hartan segitzen badute, garabi-zerbitzuak handik erretiratu eta Udalaren auto-gordelekura eramango ditu ibilgailuen titularrak topatu ezin izan badira; horrelakoetan, baimenaren titularrak ordaindu beharko ditu garabi-zerbitzuaren gastuak.

## II. KAPITULUA. JOKABIDE-ARAUAK

### 6. artikulua. **Oztopoak bide publikoan.**

6.1. Debehatuta dago herri-bideetan edukiontzirik, mahai hankabakarririk, kioskorik, kale-saltokirik edo traba egiten duen edonolako objekturik jartzea, aurretik Udalaren baimenik ez badu eta behar bezala babestu, seinalizatu eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko behar den besteko argirik ez badu; betiere bidezkoa den baimenean ezarritako arauak betez.

6.2. Udal agintaritzak, lehendik emandako agindua bete ezean, oztopoak nahitaezko betearazpenez erretiratuko ditu eta gastuak interesatuek ordaindu beharko dituzte honako kasu hauetan:

1. Dagokien udal baimena eskuratu ez dutenean.
2. Baimenak zehaztutako epea gainditu denean.
3. Baimenean zehaztutako baldintzak betetzen ez direnean.
4. Baimena emateko zeuden arrazoiak desagertu direnean.

6.3. Era berean, oztopoak erretiratuko dira segurtasun-arrazoiak edo garbitasunezkoak direla-eta hala egitea beharrezkoa denean, obrak egin beharra dagoenean, ikuskizunak daudenean, behar den baimena duten segizioak pasatu

behar direnean eta neurria hartzeko arrazoiak ematen dituzten beste horrelako kasu batzuetan.

Oztopoak erretiratzeko gastuak Udalaren kontura izango dira, baldin eta oztopoak seinaleak ipini baino lehen han bazeuden.

6.4. Debekatuta dago derrigorrezkoak diren udal lizentzia barik bide publikoan obrak eta lanak egitea. Lizentzia biak behar dira: obrarenak eta okupazioarenak. Lizentzietan finkatuko dira egunak, orduak eta gainerako baldintzak, eskaera egin dutenek derrigorrez bete behar dituztenak.

Obrak egiten direnean, bide publikoetan zirkulazioa zeharo eteteko edo neurri batean eteteko baimena eman daiteke, aurretik, interesatuak eskaera eginda. Eskaera horretan obraren zergatia eta iraupena jaso behar da, eta dokumentu hauek erantsi behar dira: obra-lizentziaren fotokopia; lekuaren krokisa, kotak behar bezala ezarrita eta 1/500 eskalan eginda; eta bide publikoetan zirkulazioa mozteagatik Udal Ordenantza Fiskalek ezartzen duten tasaren kitapena.

Moztuta geratu den bide-zatia Bide Segurtasunaren Legeak eta Zirkulazioko Erregelamendu Orokorrak ezarritakoaren arabera seinaleztatuko da; eta hala balegokio, Udaltzaingoak emandako aginduek diotena beteta.

Obrak seinaleztatzea, balizatzea eta babestea interesatuari berari bakarrik dagokion erantzukizuna da, indarrean dagoen legeriaren arabera.

6.5. Bide publikoan obrak direla-eta trafikoa zuzendu beharra dagoenean, obrak egiten ari den enpresak berak zuzenduko du trafikoa Udaltzaingoaren gainbegiradapean.

6.6. Arau orokor legez eta baldintzek hala egiten uzten dutenetan, kalean jarritako oztopoak, seinaleak, balizak eta bestelakoak, jarri zituenak berak aldatu edo erretiratu beharko ditu jartzeko arrazoiak aldatu edo ezereztu bezain pronto; eta hori beharrezkoak ez diren edozein denbora-tartetan, batik bat gauez eta jaiegunetan.

6.7. Edukiontzia jartzea.

1.- Edukiontzia, hau da, altzariak edo etxeko gauzak jasotzekoak, obra-hondakinatarakoak, etxe barruko zaborrak biltzekoak edo bestelakoak, udal organo eskudunak zehazten dituen lekuetan jarriko dira, ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioari ahalik eta kalte gutxien eginda.

2- Edukiontziek gurpilak badituzte, eusteko mekanismoak eduki behar dituzte nahigabe mugi ez daitezen.



3- Bideen egoeragatik, edukiontziak zirkulaziorako erreietan aldi baterako jartzea derrigorrezkoa denean, modu eraginkorrean seinaleztatu behar dira, bai gauez bai egunez, handik 50 metrora gutxienez oharremateko moduan.

4- Udaltzaingoak erretiratu egin ditzake aurretiazko udal baimenik gabe jarrita dauden edukiontziak, gune baimenduetatik kanpo daudenak, behar bezala seinaleztatu gabe daudenak eta zirkulazioarentzat arrisku larria ekar dezaketenak.

Neurri hori hartzeak dakartzan gastuak, edukiontziak jarri edo jartzeko agindua eman duen pertsonak edo erakundeak ordaindu behar ditu.

#### 7. artikulua. **Seinalizazioa.**

Ordenantza honen xede diren bideen erabiltzaile guztiak derrigortuta daude zirkulazio-seinaleek diotena betetzera eta euren jokabidea seinaleen mezura egokitzen.

7.1. Zirkulazio-seinaleak zirkulazioarendako muga jakin batzuk dauzkaten gune edo tokietako sarbideetan jarriko dira, seinaleei buruzko legenda bat izango dute eta gune guzti horretan egongo dira indarrean.

7.2 Ezin da zirkulazio-seinalerik jarri aurretiaz udal baimenik ez badago.

7.3 Jarriko diren informazio-seinale bakarrak udal-agintaritzaren iritziz interes publikokoak direnak izango dira.

7.4. Ezingo da publizitaterik jarri zirkulazio-seinaleetan edo haien ondoan.

7.5. Debehatuta dago markesinak, kartelak, iragarkiak eta instalazioak jartzea, erabiltzaileei semaforoak eta seinaleak normal ikustea galarazten edo mugatzen badiete edo arreta galarazten badiete.

7.6 Udalak kendu egingo ditu behar bezala baimendu gabeko seinale guztiak edo indarrean dauden arauak betetzen ez dituztenak; gastuak seinaleak jarri dituenak ordaindu beharko ditu edo –ordezkotasunez- seinale horien onuradunek.

#### 8. artikulua. **Geratzea.**

Geldialditzat hartuko da ibilgailu bat borondatez ibilgetzea pertsonak hartzeko edo uzteko, edo zamalanetarako, iraupena ez bada bi minututik gorakoa.

8.1. Espaloirik ez duten kaleetan, geldialdia gertuen dagoen fatxadatik gutxienez metro eta erdira egingo da, betiere bestelako seinalerik ez badago.

8.2 Kasu hauetan zeharo debekatuta dago geratzea:

8.2.1. Seinaleek hori egitea debekatzen duten leku guztietan, salbu eta gaixoak edo ezinduak hartu edo lagatzeko, edo larrialdi-zerbitzuak, segurtasunezkoak edo/eta baimendutako ibilgailuak badira.

8.2.2. Geldialdiak, bidearen erabiltzaileei hango zirkulazio seinaleak ikustea eragozten dien lekuetan.

Desgaitasun fisikoa dutenen ibilgailuentzat seinale bidez gordeta dauden tokietan.

8.2.3. Larrialdi-zerbitzuetarako, segurtasunerako edo baimendutako ibilgailuentzat gordetako tokietan.

8.2.4. Lehentasunezko zatik deklaraturako bideetan, trafiko-intentsitate handikoetan edo arreta berezikoetan, salbu eta seinaleztatutako lekuetan, baldin eta halakorik balego.

8.2.5. Ibilgailuen edo jendearen zirkulazioan eragozpenak sortzen diren lekuetan.

8.2.6. Aterpe, irlatxo, erdibitzaile, babes-eremu eta trafikoa seinaleztatzeko gainerako elementuen gainean.

8.2.7. Pasabidea behar bezala seinaleztatuta duten higiezin sarbideetan oztopo egiten dutenean.

8.2.8. Espaloi, pasealeku, oinezkoen esparru eta lorategi gainetan.

8.2.9. Izkina, bidegurutze edo bidebanatze batetik 5 m. baino gutxiagora.

8.2.10. Zubietan eta pasabide goratuetan edo horien azpian.

8.2.11. Autobus geltokietan.

8.2.12. Zirkulazio martxaren kontrako noranzkoan.

## 9. artikulua. **Aparkatzea.**

Ibilgailu bat minutu biko baino gehiagoan ibilgetua dagoenean esaten da aparkatuta dagoela, baldin eta aparkatze hori zirkulazioarengatik edo Udaltzaingoko agenteek emandako agindu batengatik izan ez bada.

9.1. Ibilgailuek lerroan aparkatu behar dute, hau da, galtzadatik paraleloan, baldin eta bestelakorik dioen seinaleztapenik ez badago, zoruan markaturako perimetroaren barruan eta espaloitik ahalik eta gertuen, lerrabidea libre utzita —

espaloirik ez duten kaleetan izan ezik— horretan 8.1. artikulua ezarritakoa bete behar baita.

9.2. Beste seinaleztapenik ez badago, bi noranzko duten bideetan lerroan aparkatzeko baimena dagoela ulertuko da, eta noranzkoaren eskuma aldera aparkatuko da. Norantza bakarreko bideetan ere era horretan aparkatuko da, eta bidearen zabalerak traba barik aparkatzen uzten duenean, ezkerreko aldean ere aparkatu ahal izango da.

9.3. Kasu guztietan, gidariak aparkatzerakoan beren ibilgailua ezin mugitzeko moduan utzi behar dute, eta horretarako behar besteko eta behar adinako neurriak hartu beharko dituzte. Gidariak izango dira, esandako arrazoi horietako baten ondorioz ibilgailua lekuz aldatzean eta sor daitezkeen arau-urratuen eta kalteen erantzuleak; ez da, baina, hala izango, ibilgailua hirugarren baten eraginez mugitu izan bada eta horretan indarkeria nabaria erabili izan bada. Aparkatu behar da sartzeko eta irteteko maniobrak egiten uzteko moduan eta geratzen den lekua beste erabiltzaileek hobeto erabiltzeko moduan.

9.4. Motozikletei edo ziklomotorrei espaloi gainetan aparkatzen utziko zaie, horretarako propio seinalatutako lekuetan edo baldintza hauek betez gero:

- Espaloiak, oinezkoek trabarik edo kalterik gabe ibiltzeko adina leku badu.
- Oinezkoei ez bazaie kalterik egiten eta espaloi-zatitik oinezkoaren abiadan badao.
- Establezimendu baterako sarreran traba egiten ez badu edo erakusleiho bat ikusten uzten badu.
- Motoa ondo finkatuta aparkatu bada eta lurrera erortzeko arriskurik ez badu.

9.5. Debekatua dago ibilgailuak aparkatzea kasu hauetan:

9.5.1. Aurreko artikuluan geratzea debekatzeko deskribatu diren kasu guztietan.

9.5.2. Udal agintaritzak ordutegi mugatuko aparkaldi gisa gaitutako lekuetan, baimena ematen duen bereizgarria jarri gabe badago, edo, bereizgarria jarrita, baldin eta ibilgailua udal-ordenantzak baimendutako gehieneko denbora baino denbora gehiagoz aparkatuta badago.

9.5.3. Bigarren lerroan; berdin dio lehen lerroa traba batekin edo/eta babeserako elementu batekin okupatua badago.

9.5.4. Zamalanetarako jarritako lekuetan, erabilera-ordutegiaren barruan.

- 9.5.5. Garraio publikoaren geraleku batean.
- 9.5.6. Desgaitasun bat dutenek bakarrik erabiltzeko seinaleztatutako lekuetan.
- 9.5.7. Espaloi, pasealeku, eta oinezkoentzat diren gainerako lekuetan.
- 9.5.8. Zuzen seinaleztatutako pasabideen aurrean.
- 9.5.9. Trenbideetan eta herri barruko garraioarentzat jarritako erreietan geratzea edo aparkatzea, arau-hauste astuntzat hartuko da.
- 9.5.10. Zeharka aparkatzea, aukera hori ematen duen seinalerik ez dagoenean.
- 9.5.11. Lerroan aparkatzea, dagoen seinaleak zeharka aparkatzeko lekua dela dioenean.
- 9.5.12. Aurreko ataletan sartuta egon ez arren, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa arriskuan jartzen edo larriki oztopatzen duten aparkalekuak.
- 9.5.13. Leku berean jarraian hilabete baino gehiago.
- 9.5.14. Lorategietan, heskaietan, arboladietan, parkeetan eta hiria txukuntzeko jarritako bidearen beste toki batzuetan.
- 9.5.15. Bide publikoetan erremolkeek ez dute aparkatzerik izango ibilgailu traktoretik edo motorretik bananduta; ezta 3.500 kilotik gorako BGM duten autobusek, traktoreek, karabanek edo ibilgailuek ere, berariaz baimendutako eran, lekuetan eta aldietan izan ezik.
- 9.5.16. Debekatua dute merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek udalerriko bide publiko guztietan aparkatzea. Debekatua geratzen da, halaber, eragozpenak eta usain txarra sortzen duten animaliak eta merkantziak garraiatzeko ibilgailuak aparkatzea.
- 9.5.17. Debekatuta dago aparkatzea debekatua dagoela dioten seinale bertikalak edo horizontalak dituzten aldeetan eta arauz debekatua dagoen lekuetan.

#### 10. artikulua. **Oinezkoen esparruak.**

Oinezkoen esparruak dira herriko kale edo bide batzuk, non, udal administrazioak ibilgailuak zirkulatzeko debeku osoa edo neurri bateko debekua emana duen edo/eta ibilgailu batzuk edo ibilgailu guztiak aparkatzea debekatua duten.

Oinezkoentzako esparruak modu egokian seinaleztatuta egongo dira, sarreran nahiz irteeran; eta, horrez gain, hainbat elementu mugikor jar daitezke esparru barruan ibilgailuak sartzea eta zirkulatzeko eragotziko dutenak. Hala ere

esparruaren diseinuak, egiturak, apaingarriak edo zoruak oinezkoen lekua dela agerian uzten badu ez da horrelakorik jarriko.

Oinezkoentzako esparruetan ibilgailuak zirkulatzeko eta aparkatzeko debekuak, Esparruaren perimetroak mugatzen dituen kale edo bide guztiak har ditzake, edo batzuk baino ez.

Ordutegi jakin bat eduki dezake edo ez.

Finkoa izan daiteke, edo asteko egun jakin batzuetarakoa baino ez.

Jarritako mugak direnak direla, ez dute eraginik izango honako ibilgailu hauen zirkulazioan eta aparkatzean:

- Su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako ibilgailuak, poliziarenak, anbulantziak; orokorrean, zerbitzu publikoak eskaintzeko baimena duten ibilgailuak.
- Gaixoak edo ezinduak daramatzaten ibilgailuak.
- Esparru horretan dauden garajeetatik edo baimendutako aparkaleku batetik irten edo bertara sartzen direnak.

Udalak txartel edo ezaugarri berezi bat emango du; bertan ibilgailuaren matrikula azalduko da eta zirkulatzeko baimena zer bidetan duen esango da; oinezkoen esparrutik zirkulatzerakoan ibilgailuan ondo ikusteko leku baten jarri behar da.

Txartel hori eskuratzeko aurkeztu beharreko dokumentuak hauexek dira:

- Ibilgailuaren zirkulazio-baimena; baimenaren titularra eta eskaera egiten duena pertsona bera izan behar da.
- Bere jabetzako plazaren edo plazen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- Aparkaleku-plaza alokairukoa bada edo jabeak lagatakoa, alokairu-kontratuaren fotokopia edo jabearen baimena aurkeztu beharko dira.

Egoiliarren txartela urtero berritzen da.

Ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertu behar den helbideari dagokionez, Bide Segurtasunerako Legeak eta lege hori garatzen duten erregelamenduek esandakoa bete behar da.

- Zamilanak baimendutako kale eta orduetan egiten dituzten ibilgailu baimenduak.
- Ekipajeak edo/eta fardel handiak edo pisu handikoak esparru horren barruan dauden etxeetara edo hoteletara garraiatzen dituztenak edo hortik irteten direnak.

- Udal agintaritzaren ebazpen arrazoitu bidez debeku honetatik kanpo berariaz utzitako ibilgailuak.

Bizikletak, zirkulazio-samalda dagoenean izan ezik, betiere oinezkoek ibiltzeko orduan duten lehentasuna errespetatuta. Abiadura, oinezkoenera moldatu beharko da jende asko edo gutxi dabilen ikusita, eta moteldu oinezkoek duten ibilera normalera egokitu arte, behar bada geratzeraino; bizikletek ezin dute oinezkoen segurtasunari kalte egin diezaiokeen maniobra zabarrik edo ausartegirik egin.

Udal administrazioak oinezkoen esparruan ezarritako muga horietako batzuk edo guztiak ken diezazkieke esparru horretan bizi diren hiritarren ibilgailuei edo kale horietan dauden merkatarien ibilgailuei.

Oinezkoen esparruetan oinezkoek dute lehentasun osoa, ez ibilgailuek.

Oinezkoen esparruak II. Eranskinean jasotakoak dira.

#### 11. artikulua. **Bizitegi-kaleak edo kooexistentziazkoak.**

Udalak bide publikoetan gune jakin batzuk ezar ditzake —bidezkoak diren seinaleak ipinita—, non ibilgailuentzat dauden zirkulazio arau orokorrak murriztu egingo diren eta oinezkoek izango duten beti lehentasuna.

Bizikletek ere lehentasuna izango dute gainerako ibilgailu guztien gainetik, baina ez oinezkoen gainetik.

#### 12. artikulua. **Ibilbide berdea.**

Ibilbide berdeek seinaleak izango dituzte sarrera- eta irteera-lekuan; hala ere, elementu finkoak edo/eta mugikorrek ere erabil daitezke ibilgailuei sartzen eta zirkulatzen ez uzteko.

Ibilgailu motordun guztiek eta ziklomotoreek debekatua dute hortik ibiltzea eta horrelako lekuetan aparkatzea. Debeku honek ez die eragingo su-itzaltze eta salbamendu-zerbitzuko ibilgailuei, ezta polizia-, garbiketa- eta anbulantzia-zerbitzuetako ibilgailuei ere, baldin eta zerbitzu bat ematen ari badira.

Debekatuta dago baita zaldiak eta ganadua zirkulatzea edo animaliek tiratutako ibilgailuak.

Bizikletak, patinak, gurpil-oholak eta trizikloak ibili ahal izango dira, betiere oinezkoen lehentasuna errespetatuz eta oinezkoentzat arriskurik sortu gabe, betiere neurrizko abiadurari eutsiz eta abiadura hori oinezkoen presentzia handiago edo txikiagora egokituz, eta oinezkoen segurtasunari eragin diezaiokeen maniobrarik egin gabe..

### 13. artikulua. **Garraio publikoaren geralekuak.**

Udal Administrazioak zehaztu ahal izango du zer tokitan eta zenbat denboraz egin behar diren garraio publikoko zerbitzu bakoitzarentzat jarritako geraldak.

Ezin izango da bidaiariak hartzeko edo uzteko behar den denbora baino gehiago egon, linearen jatorri edo amaiera gisa seinaleztatutakoetan izan ezik.

Ibilgailu-kopurua ezingo da inoiz izan geralekuak duen kapazitatea baino handiagoa.

### 14. artikulua. **Zamalanak.**

Zamalanak egiten dituzten garraio-ibilgailuen pisuan eta neurrian, indarrean dagoen legeriak ezarritakoa bete behar da. Hala ere, Alkatetzak, kapazitatearen arabera, mugak jar ditzake hiriko bide jakin batzuen.

14.1. Bide publikoetan merkantzien zamalanak egiteko, merkantziak garraiatzeko ibilgailuak erabiliko dira, edo bestela, horretarako behar den baimena dutenak.

14.2. Salgaien zamalanak, batik bat, merkataritza- edo industria-lokalen barruan egin behar dira; lokal horiek zamalanetarako bete behar diren baldintzak bete behar dituzte.

14.3. Merkataritza- edo industria-lokalen baldintzengatik zamalanak barruan egiterik ez dagoenean, zamalanak horretarako ipinitako orduetan eta guneetan egingo dira.

14.4. Udal agintaritzak zehaztuko du zein diren zamalanetarako gordetako guneak eta zamalanak egiteko baimendutako ordutegia.

14.5. Udal agintaritzak baimenak eman ahal izango ditu zamalanetarako gordetako lekuak erabiltzeko.

14.6. Baimendutako ibilgailuek zamalanetarako gordetakoo guneetan bakarrik aparkatu ahal izango dute, eta lan horiek egiteko helburu bakarrarekin.

14.7. Hala ere, zamalanak egin ahalko dira ezarritako ordutegi eta lekuetatik kanpo, baldin eta auzoko bizilagunei edo bidearen nahiz kalearen erabiltzaileei kalte edo enbarazu egiten ez bazaie. Inolaz ere ezingo da tratatu edo zaildu, ez oinezkoen zirkulazioa, ez ibilgailuena, ezta baimendutako pasabideetarako sarbideak ere.

14.8. Ezingo da zamalanik egin gelditzea debekatuta dagoen lekuetan.

14.9. Zamalanetako salgaiak, materialak eta objektuak ez dira lurrean utziko: ibilgailutik higiezinera edo higiezinetik ibilgailura eramango dira zuzenean.

14.10. Zamalanak behar besteko arretaz egin beharko dira, alferrikako zaratak saihesteko, eta erabilitako lekua garbi utzita.

14.11. Merkantziak espaloitik gertuen dagoen aldetik sartu edo aterako dira, eta lana ahalik eta azkarren egiteko behar diren baliabide guztiak erabiliko dira, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa ez oztopatzen ahaleginduta. Zamalanak egiteko gehieneko denbora 15 minutukoa da. Zamalanak egiterakoan oinezkoentzat edo ibilgailuentzat arriskuren bat egon daitekeela ikusiz gero, behar bezala seinaleztatuko da.

14.12. Alkatetzak, honako gai hauei buruzko ebazpenak edo erabakiak har ditzake:

- Zamalanetarako guneak seinaleztatzea.
- Zamalanetarako guneak zedarritzea.
- Hiriko bide edo kale jakin batzuetan zirkulatzeko edo/eta aparkatzeko, ibilgailuen pisua eta neurria mugatzea.
- Zamalanak egiteko baimendutako ordutegia ezartzea, herriko bideek eta auzoek dituzten arazoak kontuan hartuta.
- Merkantzien zamalanetarako propio jarritako lekuetan gehienez ere zenbat denbora egon daitekeen.
- Zamalanak egiteko zerbitzu bereziak, egunak, orduak eta lekuak adierazita.
- Baimen bereziak honako hauentzat:
  - \* 12 tona edo hortik gorako kamioientzat.
  - \* Merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.
  - \* Bestelakoak.

14.13. Debekatuta geratzen da hondarrak, legarrak edo hartxintxarra edo lurrera jausteko modukoa den beste edozein material mota garraiatzen duten ibilgailuek gainean daramatena zirkulatzerakoan lurrera erortzeko moduan zamatzea. Kalera zerbait eroriz gero, ibilgailuaren gidaria eta ibilgailuaren ugazaba izango dira garbiketaren ardura hartu beharko dutenak.

14.14. Zoruan edo hiri-altzarien elementuetan kalterik egingo balitz, ibilgailuaren titularrari egotziko zaizkio kalteak eta hark ordaindu beharko ditu. Hirugarrengeoi egindako kalteen erantzukizuna ere titularrarena izango da.

15. artikulua. **Gordetako erreiak eta bideak.**



15.1. Udal agintaritzak gorde ditzake errei edo bide jakin batzuk ibilgailu-mota batzuen zirkulaziorako.

15.2. Ibilgailu horiek, gorde zaizkien bide eta errei horietatik zirkulatu behar dute derrigorrez.

#### 16. artikulua. **Abiadura.**

16.1. Herri barruan, gehieneko abiadura 30 km/h-koa izango da, beste zerbait dioen seinalerik izan ezean.

16.2. Oinezkoen gunetan, zirkulatu ahal denean, espaloirik ez duten galtzadetan eta oinezko asko dauden beste toki batzuetan, ibilgailuek abiadura moteldu egin behar dute oinezkoek duten ibilera normalera egokitu arte, behar bada geratzeraino; istripurik ez izateko kontu handia ipini behar dute.

16.3. Zorua egoera txarrean badago, obrak badaude, eguraldi txarra badago... Horrelakoetan ere kontu handia ipini behar da oinezkoen istripurik ez sortzeko edo oinezkoei eragozpenik ez egiteko.

#### 17. artikulua. **Zirkulazioa.**

17.1. Ibilgailuek ezin dute zaratarik atera seinale akustikoak modu desegokian erabiltzeagatik, azelerazio zabarrak, ihes-tutu aldatuak edo kaltetuak erabiltzeagatik edo antzeko beste arrazoiren batengatik.

17.2. 18.1 artikulua ezarritakoa beteko ez balitz, bidezkoa den zehapen-espeditentzaz gain, ziklomotorraren edo motozikletaren titularrari errekerimendu bat bidaliko zaio ikusi den akats hori 7 eguneko epe batean konpon dezan; epe hori igaro ondoren, ibilgailua Udaltzaingora ekarri behar du titularrak, eta hor, ihes-tutuak ateratzen duen zarata-maila baimentzen den muga horretatik gorakoa ez dela egiaztatu ondoren, zehapen-espeditentza artxibatuta geratuko da. Aurreko atalean esandako errekerimendu horri jaramonik egiten ez bazaio ibilgailua ibilgetu egingo da, eta ugazabak esandako konponketa-tailerrera eramango da motorra itzalita duela.

17.3. Ibilgailua ibilgetu arren jabeak ez badu esaten zer lekutara eraman behar den ibilgailua gerarazi zuen kalte hura zuzentzeko, ibilgailua autoen udal gordelekura erretiratuko da.

- 17.4. Ibilgailu motordunen eta ziklomotoeen zarata jaulkipen maila handiena zehazteko orduan 1367/2007 EDak dioena aplikatuko da, zeinak azaroaren 17ko 37/2003 Zaratari buruzko Legea garatzen duen. Hona hemen ziklomotoreek atera dezaketen zarata-mailaren muga: 50 cc-tik gorako ziklomotoreek 89 dBA; 51tik 175era bitarteko motozikletek 92 dBA eta 175etik gorako motozikletek, 98 dBA.
- 17.5. Muga horiek gaindituz gero honela neurtuko dira hutsegiteak: 5 dBAraino hutsegitea arina izango da, 5etik 10 dBArainokoa astuna eta 10 dBAtik gorakoak, oso astuna.
- 17.6. Bizikletek, patinek, monopatinek eta trizikloek horretarako erreserbatutako erreietatik zirkulatu beharko dute, eta, halakorik ezean, oinezkoentzako guneetatik zirkulatu ahal izango dute, betiere oinezkoen joan-etorriak horretarako aukera ematen badu, haien lehentasuna errespetatuz eta arriskurik sortu gabe, betiere abiadura motelari eutsiz oinezkoen pausora moldatua.
- 17.7. Monopatinak, motorrik ez duten patinak eta antzeko aparatuak kirol-jarduera gisa bakarrik erabil daitezke horretarako prestatutako lekuetan.
- 17.8. Galtzada askotako bideetan, txirrindulariek alboko bideetatik zirkulatuko dute.
- 17.9. Bizikleta, ziklomotore eta motozikleta gidariak, indarrean dauden zirkulazio-arauak eta seinaleak ezagutu egin behar dituzte, eta haiek diotena eta Agintaritzaren Agenteek emandako aginduak zintzo bete.
- 17.10. Bizikletek elementu distiratsuak izango dituzte, behar den bezala homologatutakoak eta Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean zehaztutakoak.
- 17.11. Ziklomotoeen eta motozikleten gidariak eta eurekin doazenek kasko homologatua eraman behar dute jarrita, behar den moduan lotuta.
- 17.12. Bizikletek galtzadatik zirkulatzen dutenean, eskumako aldera hurbildu behar dira ahalik eta gehien.
- 17.13. Motoristak taldean doazenean, banakako ilaran zirkulatu behar dute eta euren artean segurtasun-distantzia gorde, abiadura edo abilezia lehian zein baino zein gehiago hasteke. Bata bestearen ondoan zirkulatzea debekatua dute.

17.14. Txirrindulariek taldean joatea badute, baina betiere bidearen eskumako aldera ahalik eta gehien hurbilduta; ikuspenik ez duten bide-zatietan eta trafiko-aglomerazioa sortzen dutenean, ilaran joan behar dira.

17.15. Debekatua dago bizikletan beste norbait eramatea.

17.16. Ziklomotorretan eta motozikletetan, gidariaz gain, gehienez ere beste bidaiari bat joan daiteke honako baldintza hauek betez gero:

- Zirkulazio-baimenean edo Ezaugarrien Ziurtagirian hala jasota dagoenean.
- Mota horretako ibilgailuetako bidaiariak, edozein bide-motatatik zirkulatzen ari dela, hankak alboetako oin-euskarrietan bermatuta eramatea.

Bidaiaria sekula ezin da jarri gidatzen duenaren eta motozikletaren eskulekuaren artean.

17.17. Motorrek, hiru gurpileko ibilgailuek, ziklomotorrek eta zikloek eta bizikletek atoi edo erdi-atoi bat eraman ahal izango dute, betiere ibilgailu traktorearen hutsik dagoen masaren % 50 gainditzen ez badute eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- Egunez zirkulatzea eta ikuspena gutxitzen ez duten baldintzetan ibiltzea.
- Baldintza horietan hartuko den abiadura, 1428/2003 EDaren 48. artikulua ibilgailu horientzat ezartzen dituen abiadura generiko horiek baino % 10 gutxiagokoa izatea.
- Atoian edo erremolkean pertsonarik sekula ez garraiatzea.

17.18. Esku-gurdiek eta gurpil-aulkiak oinezkoen esparrutik zirkulatuko dute, neurri aldetik oinezkoei trabarik egin barik ibiltzeko modukoak badira. Bestela, galtzadatik zirkulatuko dute, eskumako aldera ahalik eta gehien hurbilduta eta bideen seinaleek diotena beti errespetatuta.

17.19. 18.1 artikuluan ezarritakoari egindako arau-hausteei 300 euro arteko isuna jasoko dute.

18. artikulua. **Zirkulatzeko edo aparkatzeko baimen bereziak.**

Udal Agintaritzak, pisu edo neurri jakin batetik gorako ibilgailuei leku edo/eta ordu jakin batzuetan zirkulatzeko edo aparkatzeko mugak ezar diezazkieke; ibilgailu horiek ez dute herriko bideetatik zirkulatzerik udalak horretarako berariaz

emandako baimenik ez badute. Baimen hori joan-etorri bakar baterako edo denbora jakin baterako eman daiteke

Debekatua dute herriko bideetan zirkulatzea 3,5 tonatik gorako gehieneko masa baimendua izan eta herrira etorri beharrik ez duten kamioiek. Hiria inguratzen duten bideak edo ingurubideak erabili behar dituzte.

Hiriaren sarreran, gidariei murriztapen-arau horien berri emateko bidezkoak diren seinaleak jarriko dira.

#### 19. artikulua. **Lineaz kanpoko garraioa**

19.1. Ezabatua (GAO 57 ZK, 2011-3-24)

19.2. Herri barruan bederatzi plaza baino gehiagoko ibilgailuetan —gidariarena barne— lineaz kanpoko garraio-zerbitzua emateko, udal baimena behar da.

19.3. Zerbitzuaren titularrek —pertsona fisikoak edo juridikoak— eskatu behar dute udal baimena; eskabidearekin batera, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazioa, proposatutako ibilbidea eta egin nahi dituzten geldialdiak ekarri behar dituzte.

19.4. Baimenak bertan ezarritako eperako bakarrik balio izango du, eta eman zen baldintzetan edozein aldaketa eginez gero, beste baimen berri bat eskatu behar da.

19.5. Ezingo da geltokietan egon bidaiariak utzi edo jasotzeko behar den baino denbora gehiagoan, linearen hasiera edo amaiera lekutzat seinaleztatutako lekuetan izan ezik.

Taxi-zerbitzura zuzendutako garraio publikoko geralekuetan, ibilgailu hauek bakarrik egon ahal izango dira bidaiarien zain.

Eskola-garraioko autobusak dagokion baimenean berariaz adierazitako lekuetan bakarrik gelditu ahal izango dira bidaiariak hartzeko edo uzteko.

#### 20. artikulua. **Erabilera debekatuak bide publikoetan.**

20.1. Bide publikoetan ez da utziko beste oinezko batzuentzat eta baita horretan ari direnentzat ere arriskugarriak edo gogaikarriak izan daitezkeen jokorik edo jolasik egiten.

20.2. Edozein esparru edo zerbitzutara sartzeko ilarak ordenaz eratu behar dira, banan-banako ilaran, eraikinetako fatxaden luzetara jarrita, galtzadara pasatzeke

eta etxebizitzetarako eta dendetarako sarbideak libre utzita. Ilara sortu duen jardueraren arduradunek ordena zaintzeko zerbitzua eduki behar dute gorabeherarik izan ez dadin edo kale-erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko.

Oinezkoak espaloietatik ibiliko dira; batik bat eskumatik. Oinezkoak ezin dira espaloietan geratu, hori egitean gainerako oinezkoen pasoari traba egiten badiote. Galtzadak seinaleztatutako pasabideetatik gurutzatuko dute, eta seinalerik izan ezean, etxe-uharteen erpinetatik, galtzadarekiko perpendikularrean, behar den arreta ipinita, erregulatutako pasabideetan oinezkoendako ematen diren aginduak zehatz bete behar dituzte.

20.3. Debekatua dute merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek herri barrutik zirkulatzea; horretarako hiriko ingurubideak erabili beharko dituzte.

Salbuespen gisa, horrelako ibilgailuei herri barruan sartzen uzteko baimena emango zaie ondoren adieraziko diren kasu hauetakoren bat gertatzen denean, baldin eta horretarako bakarrik sartzen badira eta urtarrilaren 31ko 74/92 Errege Dekretuak ezartzen duen eran eta baldintzetan egiten bada:

- Merkantzien zamalanak egiteko edo merkantziak banatzeko.
- Ezinbesteko kasuetan, behar bezala justifikatzen bada.

20.4. Debekatua dago aparkatzeko diren gune publikoak merkataritza-jardunerako erabiltzea, hau da, salerosketa-eragiketak leku horretan bertan egitea edo gune horiek erabiltzea merkantziak erakutsi, utzi edo biltegitzeko.

Honako kasu hauek aparkalekuetan merkataritza-jarduna burutzeko debekatutako okupaziotzat hartuko dira izaera ez mugatuz, baldin eta Udalaren baimena eskuratu ez bada:

1. Aparkatzeko tokia egin nahi den salerosketara lotuak dauden elementuekin okupatzea.
2. Aparkatzeko tokia salerosketak egiteko ibilgailuekin okupatzea.
3. Ondoren adieraziko diren egoera hauetan Ibilgailuak aparkatzeko tokian etengabe aparkatzea, nahiz eta bertan aparkalekuan lekuz aldatu:
  - Ibilgailuek salgai dagoela dioten kartelak edo bestelakoak eramatea.
  - Ibilgailuek telefono zenbakia edo saltzailearekin harremanetan jartzeko moduren bat ipinita edukitzea.

- Ibilgailuak saltzeko erakusgai jarrita daudela adierazten duen beste moduren bat detektatzea.

Okupazio hori aparkalekuetarako tokien abusuzko eta baimenik gabeko erabilera denez, Udalari dagokio egoera bere onera ekartzea, eta, beraz, guneak aurreikusia duen aparkaleku-erabilera berreskuratzea.

Horretarako, erantzuleari bidezkoa ez den okupazio hori uzteko agindua eman eta hauxe ohartemango zaio: okupatzen segitzen badu, alkateak udaltzaingoko agenteei aginduko die han utzitako ibilgailuak eta gauzak erretiratzeko eta haiek gordetzeko dagoen lekura eramateko.

Kontrako frogarik ez badago, okupazioaren erantzule gisa, ibilgailuak saltzen jartzen dituzten, ibilgailuez baliatzen diren eta gune horiek, produktuekin eta gauzeekin okupatuta, saltzeko erabiltzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak hartuko dira, aurreko paragrafoetan deskribatutako eran.

Horrez aparte, okupazioaren erantzuleari dagokion zigor espedientea ireki ahal izango zaio Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 11. artikulua ezarritakoa urratzeagatik.

## 21. artikulua. **Lehentasunezko bideak, zirkulazio handikoak edo arreta berezikoak.**

Trafikoari dagokionez, lehentasunezko bidetzat hartuko dira, ibilgailuen joan-etorriagatik, ibilbideengatik, kokapenagatik eta beste bideekiko komunikazioagatik, herri barruan zirkulazioa banatzeko ezinbesteko gertatzen direnak.

21.1. Udalak, bide jakin batzuk lehentasunezkotzat, zirkulazio handikotzat edo arreta berezikotzat deklaratu ditzake, bide horietan Ordenantza honi egindako lege-hausteengatik ezar daitezkeen zigorrak astuntzeko xedez.

21.2. Zirkulazio handiko bideak informazio-seinale bertikalen bidez identifikatuko dira.

21.3. Lehentasunezko bidetzat hartzen dira kale hauetatik doazenak: Otaola hiribidea, Barrenengua kalea, Isasi kalea, Untzaga plaza, Fermin Calbeton kalea, Bidebarrieta kalea, Zuloagatarren kalea, Julian Etxeberria kalea, San Agustin zeharra, Arikitzaneko zubia, Urkizu pasealekua, Karmen kalea, Barrena kalea, Barakaldo kalea, Arragueta kalea, Bittor Sarasketa kalea, Estaziño kalea,

Ibarkurutze plaza, Errebal kalea, San Juan kalea, San Andres pasealekua eta Torrekua kalea, edo aldi baterako oinezkoen esparru edo behin betiko oinezkoen esparru diren kaleen alternatibatzat hartzen diren kaleak eta GI-3950 eta GI-2639 errepideak edo bideak.

Udalak, Alkatetzaren Bando bidez, Ordenantza honetan lehentasunezko bidetzat deklaraturako bideak aldatu edo bide gehiago jar ditzake.

## II. TITULUA. ARAU-HAUSTEEN TIPIFIKAZIOA ETA MAILAKATZEA; EZAR DAITEZKEEN ZIGORRAK.

### I. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA MAILAKATZEA

#### 22. artikulua. **Arau-hausteen kontzeptu orokorra.**

Falta administratibotzat hartuko dira ordenantza honek arau-haustetzat sailkatzen dituen ekintza edo ez-egite guztiak eta bertan ezarritako portaera-arauen kontrako jokabideak, alde batera utzi gabe ondorio horietarako, martxoaren 2ko 339/90 EDLa eta lege horren erregelamenduzko xedapenen zuzeneko aplikazioa.

#### 23. artikulua. **Tipifikazioa.**

Eta hain zuzen ere katalogo erantsian sailkatutako jokabideak izango dira Ordenantza honen arau-haustetzat hartuko direnak, trafikoari eta zirkulazioari eragiten dietelako, baita bide publikoen erabilerari eta segurtasunari ere.

### II. KAPITULUA. EZAR DAITEZKEEN ZIGORRAK.

#### 24. artikulua. **Arau-haustek eta zigorrak.**

24.1. Ordenantza honen edo/eta gaiaren inguruko araudi orokorraren arau-haustetzat hartuko dira IV. Eranskina izenekoan sailkatutako jokabideak.

24.2 Ordenantza honetan jasota ez egon eta Udalaren tramitaziokoak diren arau-haustetan, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren Segurtasun Sailburuordetzako Trafiko Zuzendaritzak argitaratutako "Isunen Taula"n ezarritako zigorra izango da aplikatu edo erabiliko dena.

24.3. Ordenantza honi edo/eta gai honen inguruko araudi orokorrari egiten zaizkion arau-haustek honela sailkatuko dira: arinak, astunak eta oso astunak.

24.3.1. Arau-hauste arinek 90 eurorainoko zigorra jasoko dute.

24.3.2. Arau-hauste astunek 300 eurorainoko zigorra jasoko dute.

24.3.3. Arau-hauste oso astunek 600 eurorainoko zigorra jasoko dute.

24.4. Ordenantza honetan eta Trafikoko arauetan ezarritakoari egindako arau-hausteen erantzukizuna, arau-haustea ekarri duen gertakariaren egileari berari egokituko zaio zuzenean.

Ibilgailuaren titularrak, horretarako behar bezala errekeritua izan ondoren, arau-haustearen erantzule den gidaria identifikatu beharra dauka, eta bidezkoa den prozedura-tramitean obligazio hori arrazoi justifikaturik gabe betetzen ez badu, hutsegite oso astunaren egiletzat hartuko da eta diru-zigorra ezarriko zaio, 339/90 EDLak arau-hauste horrengatik aurreikusten duen zenbatekoarekin.

24.5. Arau-hausleak ez badu egiaztatzen bere ohiko bizilekua Espainiako lurraldean duenik, salaketa jarri duen agenteak behin-behinean finkatuko du isunaren zenbatekoa, eta zenbateko hori ordainduko ez balu edo zuzenbidearen alorrean ordaintzeko onartzen den edozein bidetatik ordainduko dela bermatuko ez balitz, ibilgetu egingo du ibilgailua. Edozein kasutan ere, % 30aren beherapenari dagokionez, kontuan hartuko da 339/1990 Errege Dekretu Legegileak aurreikusitakoa.

### III. TITULUA: KAUTELAZKO NEURRIAK.

#### I.KAPITULUA. IBILGAILUAK IBILGETZEA ETA ERRETIRATZEA

25. artikulua. Ibilgailuak ibilgetzea.

Honako kasu hauetan bidezkoa izango da ibilgailuak bide publikoan ibilgetzea:

- Gidariak gida-baimena aldean ez daramanean edo daramanak baliorik ez duenean. Kasu horietan gidariak indarrean dagoen gida-baimena duela adierazten badu eta bere bizilekua eta bere nortasuna argi asko egiaztatzen baditu, ez zaio ibilgailua ibilgetuko, baldin eta, arrazoiz eta oinarri sendoz, bere portaeragatik gidatzeko behar den ezaguerarik edo gaitasunik ez duela ikusten bada.
- Gidariak, ibilgailuaren zirkulazio-baimena aldean ez daramanean edo agiri horren ordezkoko baimenik ez badarama.
- Ibilgailuak akats nabarmenak eduki eta zirkulaziorako arriskutsua denean edo galtzada hondatzen duenean.



- Ibilgailuak, Ibilgailuen Ikuskatze Teknikoaren txartelean azaltzen dena baino altuera edo zabalera handiagoa duenean, edo, hala balitz kasua, duen baimen bereziak baimentzen dion horretatik gorakoa duenean.
- Ibilgailuak daraman kargaren pisua edo luzera % 10 handiagoa bada baimendutakoa baino.
- Ibilgailuak, derrigorrez erabili behar duen kasuetan eta lekuetan, katerik edo gurpil berezirik gabe zirkulatzen duenean.
- Ibilgailuaren gidariari, bidaiari-kopuruagatik edo bidaiaren posizioagatik edo garraiatzen dituen gauzen kolokazioagatik, mugitzeko aukera eta ikus-eremua modu nabarmenean eta arriskutsuan murrizten zaizkionean.
- Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak aurreikusten dituen derrigorrezko ikuskapen teknikoak egin ez direnean. Agenteek gidariari bolante bat entregatuko diote azterketa edo araketa lekuraino zirkulatzeko.
- Ziklomotorraren edo motozikletaren gidariak arauzko babes-kaskoa behar bezala lotuta ez daramanean.
- Ibilgailuak TAO guneetan aparkatzeko beharrezkoa zaion titulua ez duenean, hau da: titulu edo txartel hori faltsifikatu edo manipulatzeko denean, jarri behar den lekuan jartzen ez denean, zulatzeke dagoenean edo txarto zulatuta dagoenean.
- Titulu edo txartel horretan adierazitako ordutegia gainditzen denean eta ibilgailu batek TAO gunean egoteko duen gehieneko denbora gainditzen denean. Atal honetan aipatutako kasuetan, ibilgetzeko neurria kendu egingo da gidaria identifikatzea lortzen denean.
- Ibilgailu-motaren arabera erregelamendu bidez baimendutako gas-, ke- eta zarata-mailak gainditzen direnean, baldin eta baimendu gabeko erreforma garrantzitsuren bat egin bazaie, bai eta erregelamendu bidez ezarritako denboren 100eko 50etik gorako gehiegizko gidatze-denbora edo atsedenaldiak murrizten badira ere, edo ibilgailu mota horiek manipulatzeko zantzuak badaude. Kasu horietan ibilgailua eramateko agindua eman ahal izango da, takografoaren edo abiadura-mugatzaileen erreforma edo manipulazioa alderdi teknikitik egiaztatzeko xede bakarrarekin eta horretarako behar den beste denborarako. Ikuskapen horren gastuak salatuaren kontura izango dira, arau-haustea egin duela frogatzen bada.

- Ibilgailuaren gidariari 339/1990 EDLren 65.5.A artikulua aurreikusitako arau-haustea egotz dakiokenean; ibilgetuta edukiko da arau-haustearren arrazoiak bere horretan dirauen bitartean. Ibilgailua ibilgetu ahal izango da halaber gidariak goian aipatu den EDLren 12. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren probak egiteari uko egiten dioenean; baita derrigorrezko aseguru ez duenean ere.

#### 26. artikulua. **Ibilgailuak bide publikotik erretiratzea.**

Honako kasu hauetan, Ibilgailua bide publikotik erretiratuko da eta gordelekura eramango, agintari eskudunaren zaintzapean edo hark izendatzen duen pertsonarenean:

- Aparkatuta dagoen ibilgailuaren eta galtzadaren beste aldeko ertzaren edo galtzada zeharkatzea debekatzen duen luzetarako marraren artean dagoen distantzia hiru metrotik beherakoa denean.
- Behar bezala geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati zirkulaziora itzultzea eragozten dionean.
- Animaliak zein pertsonak eraikin batera sartzeko nahiz bertatik ateratzeko pasabidearen erabilera normala eragozten dagoenean edo seinalea zuzen jarrita duen ibilgailu-pasabide batean dagoenean.
- Desgaitasuna dutenentzat beheratutako pasabideen erabilera normala eragozten duenean.
- Erdibitzailuetan, oinezkoen babesgunean edo trafikoa bideratzeko beste elementu batzuen gainean dagoenean.
- Seinaleak baimendutako biraketa eragozten duenean.
- Zamalanetarako guneren batean aparkatuta badago, erabilera-orduetan.
- Gidaria barruan ez dagoela, ibilgailua bigarren ilaran aparkatuta dagoenean.
- Seinaleztatuta eta mugatuta dagoen garraio publikoko geltokian aparkatuta dagoenean.
- Larrialdi eta segurtasun zerbitzuentzat bereziki gordetako lekuetan aparkatuta dagoenean.
- Galtzada erdian aparkatzen denean.
- Arriskugarria denean, edo ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari kalte latzak egiten dizkionean, edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduari kalte handiak egiten dizkionean edo ondare publikoa kaltetzen duenean.

- Ikuspen gutxiko sestra-aldaketetan eta bihurguneetan aparkatzen badu, horrelako lekuetatik gertu eta tunel, azpiko pasabideetan eta “tunela” seinalearen eraginpean dauden bide-zatietan aparkatzen badu.
- Trenbide-pasaguneetan aparkatzen badu.
- Bidegurutzeetan eta horrelako lekuetatik gertu beste ibilgailu batzuei biraketa egiteko modua zail jarrita.
- Seinaleak beste erabiltzaileei ikusten ez uzteko moduko lekuetan aparkatzen badu, besteak maniobrak eginaraztera behartuta.
- Hiri-garraio publikorako soilik erabiltzen diren erreietan aparkatzen duenean.
- Istripu edo matxura baten ondorioz, martxan jartzerik ez duenean.
- Ibilgailuaren akatsen ondorioz ibilgetua izan denean.
- Ibilgailu bat zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako bakarrik gordetako erreietan edo bide-zatietan aparkatuta dagoenean.
- Nahiz eta ibilgailua legez ibilgetu, pertsonen edo ibilgailuen zirkulazioari oztopo egiteke horretarako behar bezalako leku egokirik ez dagoenean.
- Ibilgailu batek kalean denbora gehiegi badarama utzita eta dituen baldintzengatik abandonatuta dagoela esateko behar adina oinarri eta arrazoi dagoenean, ibilgailu hori erretiratu egingo da abandonatutako ibilgailuen norakoa eta jarduteko modua arautzen duten arau espezifikoaren arabera.
- Ordenantzan hala zehaztuta etorri eta lehentasunezkoztat sailkatutako bide publikoan debeku-seinalea jarrita duten aldeetan aparkatzen denean.
- Ordenantzan hala zehaztuta etorri eta zirkulazio azkarreko edo zirkulazio handiko bide batean debekatuta dagoen alde batean aparkatuta dagoenean.
- Larrialdi- eta segurtasun-zerbitzuetarako berariaz gordetako lekuetan aparkatuta dagoenean, esate baterako, anbulantzientzat, su-hiltzaileentzat eta polizientzat gordetako lekuetan.
- Aparkatuta dagoen ibilgailu batek eragozten duenean seinaleak baimendutako biraketa egitea.
- Espaloi baten gainean —osorik edo zati batean— aparkatuta dagoenean.
- Ibilgailua espaloi edo alaka batean dagoenean, eta alboko kaleetako bateko zintarriaren lerrotik irteten denean, ibilgailu-ilara bati pasatzen eragotziz.
- Beste bide batetik datozen gidariei hartu behar duten bideko trafiko-ikuspena murrizten dieten leku batean aparkatuta dagoenean.

- Behar bezala seinaleztatuta egon eta desgaitasuna dutenentzat gordeta dauden lekuetan.
- Ibilgailu bat ibilgetu eta, 339/1990 Errege Dekretu Legegilearen 67.1 artikulua lehenengo paragrafoak ezarritakoaren arabera, arau-hausleak isunaren zenbatekoa ez ordaintzeko edo ordainketa ez bermatzeko ezetxean segitzen duenean.
- Ibilgailu bat, udal agintaritzak ordutegi mugatuko aparkalekutzat egokitutako lekuetan aparkatzeko baimena ematen duen ezaugarria jartzeke aparkatuta dagoenean, edo, ezaugarria jarri arren, udal ordenantzak ezarritakoaren arabera ordaindutako denbora halako bi gainditzen denean.
- Behar bezala arrazoitutako larrialdi-kasuetan.
- Behar den baimena duen segizio, desfile, prozesio, kabalgata, kirol-proba edo beste edozein ekitaldi esanguratsuk okupatu behar duen lekuan edo bidean aparkatuta dagoenean.
- Bide publikoa garbitzeko eta konpontzeko beharrezkoa denean.
- Ibilgailuaren egoeratik herritarrentzat arriskutsua denean, edo alarma akustikoa edo bozina berez martxan ipini eta gogaikarria egiten denean.
- Aparkatzea debekatzeko seinaleak garabiaren informazio-seinalearekin indartuta dauden eremuetan.
- Leku berean jarraian denbora luzez aparkatuta egoteagatik egindako salaketatik hogeita lau ordu igaro eta ibilgailua lekuz aldatu ez denean; betiere, udal xedapenek horrela arautzen badute.
- Ibilgailua ibilgetu zenetik hogeita lau ordu igaro eta neurri hura indargabetzeko eskabiderik egin ez denean.
- Oinezkoendako esparruan, leku horretarako ezarritako baldintzetatik kanpo aparkatuta dagoenean, horretarako baimenik eduki ezean.

#### 27. artikulua. **Erretiratzea etetea.**

Ibilgailu bat erretiratzeko agindua berehala etengo da gidaria azaldu eta ibilgailuak zuen arauz kanpoko egoera bertan behera uzteko neurriak hartzen baditu; tasei dagokienez, Ordenantzak dioena aplikatuko zaio.

## II. KAPITULUA. ORDAINDU BEHARREKO TASAK IBILGETU, ERRETIRATU ETA GORDAILUAN IZATEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEAGATIK.

#### 28. artikulua. **Tasak kitatzeko araubidea.**

Ibilgailuak kalean edo bide publikoan ibilgetu, handik erretiratu eta udal gordelekura eramatean eskaintzen den zerbitzuak dakarren tasa, jardunaldi bakoitzerako Udal Ordenantzak –zerbitzu publikoen eskaintza eta jarduerak egitea arautzen duena— ezartzen duena izango da.

Ibilgetze-agindua kentzeko erabakia horretarako baimena duen pertsonak hartuko du eta ibilgailua titularrari itzuliko zaio aldez aurretik dagozkion tasak ordainduta edo ordainketa-bermea emanda, 26. artikuluan esandako kasuetan izan ezik.

Bide publikotik ibilgailuak erretiratzearen ondorioz (339/90 EDLren 71. artikulua aurreikusitako arrazoiak tarteko direla edo Agintaritza judizialak edo beste administrazio batek horrela egitea eskatzen duelako), ibilgailuak udal gordelekuan geratzen direnean, gordeleku-zerbitzu horren eskaintzak tasak sortuko ditu, jardunaldi bakoitzean indarrean dagoen Ordenantzak kontzeptu horregatik ezarriko dituenak.

Tasa horiek ibilgailua garabira lotu den unetik ordainduko dira, hau da, erretiratzeko lanari ekin zaionetik.

#### IV. TITULUA. ABANDONATUTAKO IBILGAILUAK.

## 29. artikulua. **Bide publikoetan abandonatutako ibilgailuak.**

Ibilgailu bat abandonatuta dagoela esan ahal izango da honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

1. Bi hilabete baino gehiago igarotzea agintaritza eskudunak ibilgailua bide publikotik kendu eta gordailuan utzi duenetik.

2. Hilabete baino gehiago daramanean leku berean aparkatuta eta egoera hauetakoren batean dagoenean:

Bere kabuz mugitzea ezinezko egiten duten kalteak izatea.

Matrikula-plakak falta izatea.

Jabeak ibilgailua abandonatu duela uste izatea, dituen kalteen garrantziagatik.

Kasu horietan, hiri-hondakin solidoaren tratamendua izango du, dagokion ingurumen-araudiaren arabera.

## 30. artikulua. **Prozedura.**

Abandonatutako ibilgailuak zirkulazioari edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduari eragozpen larriarik egiten ez badio edo arriskurik ez badu — horrelako kasuetan berehala eramango bailitzateke udal gordelekura—, honela jokatu da:

1. 31. artikulua 1. atalean adierazitako kasuan, hau da, bide publikotik agintari eskudunak erretiratu eta gordelekura eraman ondoren hilabete bi baino gehiago igaro badira, titularrari aginduko zaio ibilgailua udal gordeleketatik erretiratzeko hamabost eguneko epean, ohartaraziz, hala egin ezean, ibilgailua abandonatuta edo bertan behera utzitako ibilgailutzat hartuko dela eta hiri-hondakin solidotzat tratatuko dela.
2. 31. artikulua 2. eta 3. atalean adierazitako kasuan, ibilgailuak —nahiz eta itxura batean bertan behera utzita dagoela eman— matrikulazio-plaka badu edo ibilgailuaren titularra identifikatzeko bistan edozein gauza badu, titularrari aginduko zaio ibilgailua bide publikotik erretiratzeko hamabost (15) eguneko epean, ohartaraziz, hala egin ezean, ibilgailua udal gordelekura eramango dela, alde batera utzi gabe bidezko zehapenak ezartzeko espedientea hastea. Ibilgailua erretiratuko ez balu, Udalaren auto-gordelekura eramango da eta dagozkion epeak igaro ondoren, beste jakinarazpen berri bat bidaliko zaio titularrari hamabost eguneko epean ibilgailua erretiratzeko aginduz, eta, ohartaraziz ibilgailua abandonatutako edo bertan behera utzitako ibilgailutzat hartuko dela eta hiri-hondakin solidotzat tratatuko dela.

3. 31. artikuluko 3. ataleko gainerako kasu guztietan, besterik gabe, hiri hondakin solidotzat tratatuko da.
4. Abandonatutako ibilgailuak erretiratzetik sortzen diren gastuak —udal auto-gordelekuan edukitzeagatik, baimendutako desguaze batera ibilgailua eramateagatik, desguaze-gastuak, Trafiko zuzendaritzan ibilgailuari behin betiko baja ematea...— titularren kontura doazen gastuak dira.
5. Jakinarazpenak, Ibilgailuen Erregistroan titular legeaz azaltzen denari bidaliko zaizkio. Gordelekuan dauden ibilgailuen titularrak nortzuk diren jakiterik ez dagoenean edo non bizi diren aurkitzerik ez dagoenean, bilatzeko egindako gestio guztiak emaitzarik eman ez dutenean, jakinarazpenak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratuko diren ediktuen bidez egingo dira, ibilgailuen erreferentziak eta ezaugarriak ahalik eta zehatzen emanda.

### 31. artikulua. **Udalaren auto-gordelekuan**

Trafiko arau-hausteengatik, istripuengatik, amaitu den epai-prozedurapean egon diren gertakariengatik, edo justifikazioa duten beste arrazoi batzuegatik, udal gordelekura erretiratu diren ibilgailuak han sartu zirenetik edo dena delako prozedura amaitu denetik hilabete bi baino gehiago igaro badira eta titularrek edo jabeek ez badituzte handik atera, abandonatutako ibilgailutzat hartuko dira eta prozedura horri dagokion artikuluan aurreikusitako moduan jokatu da.

### 32. artikulua. **Abandonatutako ibilgailuak desegitea.**

1. Udalak desguazera eramango ditu bertan behera utzita dauden ibilgailuak, baldin eta ibilgailua erretiratzeko eta gordelekura eramateko inguruabarra zein izan den titularrei berariaz eta formalki jakinarazi, eta, titularrek, bidezkoak diren epeak igaro eta ibilgailuen kargu hartzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ez badituzte.
2. Abandonatutako ibilgailuen desguazeari dagokionez, Udalak, horrelako ibilgailuentzat indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera, bidezkoak diren tramiteak egingo ditu horretan eskumena duten Administrazioen aurrean.
3. Aurreko xedapen horiek ez dira aplikatuko ibilgailuak epai-prozedurapean dauden trafiko gertakarietan inplikaturik badaude, harik eta tramitazioa amaitu arte.
4. Titularrek, ibilgailuak bertan behera uzteko asmoa dutela berariaz adierazi badute, Udalak bidezkoen eta komenigarrien deritzona egingo du ibilgailuekin.
5. Bertan behera utzitako ibilgailuak besterentzeko prozedurak ez du aldaraziko titularrek duten erantzukizuna ibilgailuak bertan behera uzteagatik edo titulartasun horren ondorioz lehenagotik hartutako obligazioengatik.

## V. TITULUA. ORUBEETARA ETA ERAIKINETARA SARTZEKO IBILGAILUENDAKO PASABIDEAK

### I. KAPITULUA. PASABIDEAK ETA APARKALEKUEN ERRESERBA BEREZIAK.

### 33. artikulua. **Kontzeptua.**

Ordenantza honen ondorioetarako, bide publikoko pasabidea hitzarekin hauxe da ulertzen dena: orube baten edo eraikuntza baten aurrean, espaloiar eta espaloi-ertzari egiten zaion beheragunea, autoak barrura sartzeko edo merkantzien zamalanetarakoa izaten dena.

Pasabidetzat ulertu behar da pasabide horien aurrean aparkatzearen debekua, pasabideok erabil daitezzen ezarria.

Aparkalekuen erreserba berezitat hartzen dira ahalbidetzen dutenak titularrak bere ibilgailuak aparkatzeko bide publikoa modu pribatuan erabiltzea.

### 34. artikulua. **Iraupena.**

Pasabideak izateko lizentziak betiko edo denbora jakin baterako eman daitezke.

Egun osokoak edo ordutegi jakin baterakoak ere izan daitezke.

### 35. artikulua. **Pasabide-motak.**

Egun osoko pasabideek edo iraunkorrek, egunaren hogeita lau orduetan ibilgailuak sartzeko eta uzten lagatzen dute; eta pasabide horien aurrean ezin du aparkatu ibilgailu batek berak ere, ezta pasabidearen titularrarenak ere.

Ordutegi mugatuko pasabideek, lizentzia emateko erabakian aipatzen den jarduerarako ezarritako lan-ordutegian bakarrik mugatzen dute jarduera parean geratzea edo aparkatzea.

### 36. artikulua. **Titularrak.**

Pasabidea eskatu ahalko dute, pasabide-zerbitzua ezarriko zaien eraikin, orube edo lokalen titullarrek.

Lizentziaren titularra izango da ibilgailuetarako pasabidearen erabiltzaileei betetzea dagozkien obligazio guztien erantzule bakarra.

Aurretik udalak baimena emanda, lizentziaren titulartasuna eskuz alda daiteke lizentzia emateko inguruabarrak edo baldintzak aldatu ez badira.

### 37. artikulua. **Emakidaren izaera.**

Pasabideak beti udalaren iritziazen arabera emango dira, prekarioan eta beste inori kalterik egiten ez bazaio.

Baimenak ez du sortzen inongo eskubide subjektiborik eta titularrari edozein unetan eman dakioke pasabidea kentzeko agindua eta espaloia eta espaloi-ertza lehen zegoen moduan uztekoa.

Ibilgailuen pasabidea eraiki, konpondu edo kentzeko obrak pasabidearen titularrak egingo ditu, aurretik, dagokion obretako udal lizentzia eskuratuta eta lizentzia ematen duen erabakian adierazitako baldintzak beteta.

### 38. artikulua. **Pasabidea emateko kasuak.**

Pasabideak honako kasu hauetan emango dira:



- Ibilgailuetarako gordelekuak edo garajeak gutxienez 3.500 kilotik beherako karga duten furgonetak edo bost ibilgailuk aparkatzeko lekua dutenak behar dute izan, edo karga handiagoko hiru kamioi sartzeko modukoak. Ibilgailu bakoitzeko 25 m<sup>2</sup>-ko azalera erabilgarria eduki behar dute, eta kamioien kasuan, 40 m<sup>2</sup> (betiere bideak, irispideak e.a. kontuan hartuta.).

Familia bakarreko etxebizitzetara zerbitzua ematen dieten garajeen kasuan, gutxieneko edukieraren baldintza betetzetik salbuetsi ahal izango da.

Horrelako kasuetan emango den lizentzia egun osoko pasabidearena izango da.

- Automobilaren sektoreko merkataritza-lokalak eta konponketa tailerrak, betiere jardunagatik ibilgailuak sartzeko eta ateratzen ibiltzeko premia badago.

Ordutegi jakin baterako pasabide lizentzia emango zaie horrelakoei.

- Merkataritza- eta industria-establezimenduak, 100 m<sup>2</sup>-ko gutxieneko azalera izan eta duten jardunagatik ibilgailuak sartzeko eta ateratzen ibiltzeko premia badute edo zamalanak sarritan egin beharra badute.

- Aurrez adierazitako baldintza horiek bete ez arren, pisu handiko zamalanak egin behar izaten dituzten establezimenduek ere pasabidea eduki dezakete. Aurretik, zamalanen premia justifikatu behar dute eta zamalanak egiteko erabiltzen dituzten tresnen edo aparatuen zerrenda aurkeztu.

Kasu bietan, Udalak, pasabidea ematea komeni den ala ez aztertuko du, jardueraren ezaugarriak eta kokatuta dagoen lekuko trafikoaren egoera zein den ikusita.

Pasabide-lizentzia emanez gero, ordutegi mugatukoa izango da, pasabidea ematea justifikatu duen jarduera etengabea dela ondo justifikatu ezean.

Halaber, aldi baterako pasabidea eman daiteke ordutegi jakin baterako, eraikinak edo azpiegiturak eraikitzen edo birgaitzen ibili eta obrako ibilgailuak obra dagoen aldera sartu eta irten beharra dutenean.

### 39. artikulua. **Aparkalekuen erreserba bereziak.**

Aparkatzeko erreserba bereziak gordetzeko baimena eman ahal izango zaie ibilgailuak beti beren lokaletatik kanpo eskura eduki behar dituztela behar bezala justifikatzen duten jarduera ekonomikoei, baldin eta Udalak irizten badio aparkaleku hori gordetzeak trafikoaren baldintzei on egiten diela —bigarren ilaran aparkatzea saihestegatik—, eta inguruan aparkatzeko dagoen aukerari ez diola kalte larregirik egiten.

- Administrazio edo erakunde publikoren baten menpeko zentro ofizialak, osasun-zentroak eta laguntzazkoak eta interes publikoko beste zerbitzu batzuk.

Kasu horietan, egiten den jardueraren arabera, egun osoko edo izaera orokorreko pasabidea nahiz ordutegi jakinekoa eman daiteke, eta baita ere bide publikoaren erabilera pribaturako aparkalekurako erreserba berezia izateko baimena ere.

### 40. artikulua. **Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

Eskaerarekin batera agiri hauek ekarriko dira:

- Lokalaren planoak, ibilgailuak gordetzeko zer alde erabiliko den adierazita, edo bestela, zamalanak non egiten diren esanda.
- Eskaera egiten duenaren deklarazioa, non adieraziko den jardueraren ordutegia eta bertan egiten diren zamalanen izaera eta maiztasuna.

#### 41.-. artikulua. **Lizentzia ematea.**

Pasabidea eskuratu baino lehen, ezinbesteko baldintza da pasabidea ezarri nahi zaion jarduerak Udalaren derrigorrezko irekiera-baimena edukitzea.

Ebazpen-akordioa hartu baino lehen, Udaltzaingoak kasu bakoitzaren inguruko txostena egingo du eta Trafiko eta Hirigintza batzorde aholkulariek aztertuko dute.

Eskaera aurkeztu denetik hilabete bat igaro bada berariazko ebazpenik jasotzeke, lizentziari, ezezko isiltasunez ezetza eman zaiola ulertuko da.

#### 42. artikulua. **Pasabideen baldintzak.**

Galtzadan errektangelu hori bat margotuko da, X itxurako gurutzea duela. Neurriak: 1,80 metro zabal; eta luzera, pasabide-plaka bien artean dagoen luzerari dagokiona.

Pasabidearen obrak egiterakoan, titularrek zehatz-mehatz bete behar dituzte udal zerbitzu teknikoek obra-lizentziaren baldintzetan finkatutako aginduak. Orokorrean, espaloia beheratu eta galtzadaren sestratik 3tik 5 cm-ra bitartean geratuko da, euri-urak jasotzeko arekari eragiteke eta aldameneko bide publikoan dagoen zoru-mota berbera erabilita.

Eraikinaren fatxadan eta ibilgailuen pasabiderako sarreraren alde banatan plaka jarriko da ondoren adieraziko diren hitz hauekin:

- a) Ibilgailuen egun osoko pasabideetan, seinaleak, goiko aldean "Pasabide iraunkorra" esaldia izango du; erdian aparkatzeko debekua dakarren seinalea eta beheko aldean udal lizentziaren zenbakia.
- b) Ordutegi jakin baterako pasabideetan plakaren goiko aldean "Ibilgailuentzako pasagunea" esaldia azalduko da, erdian goian esandako debeku disko hori, eta beheko aldean, debekuaren ordutegia eta udal lizentziaren zenbakia.

#### 43. artikulua. **Titularraren betebeharrak.**

Pasabidearen titularra derrigortua dago:

- a) Ibilgailuentzako pasagunearen eraikuntza-obrak egitera
- b) Zorua eta seinaleztapenerako diskoak zaintzera.
- c) Espaloi ertza eta gainerako seinaleak Ordenantza honetan ezarritako moduan pintatzera, udal administrazioak horrela egitea eskatzen duen guztietan, eta edozein kasutan ere, gutxienez urtean behin.
- d) Zorua berritzera udal zerbitzu teknikoek horren premia dagoela diotenean.
- e) Espaloia eta espaloi-ertza lehen zeuden moduan jartzera, emandako lizentzia bertan behera utziz gero.

- f) Udal teknikariei eta udaltzainei lokaletara sartzeko erraztasunak ematera, behar diren egiaztapenak eta ikuskaritzak egin ditzaten.

#### 44. artikulua. **Baliogabetzea.**

Ibilgailuentzako lizentziak kasu hauetan baliogabetuko dira:

- a) Ibilgailuentzako pasagunearen eraikuntza-obrak ez egiteagatik edo modu ez zuzenean egiteagatik.
- b) Titularrak erabilitako zorua behar den bezala ez zaintzeagatik.
- c) Ibilgailuen pasabidea ez erabiltzeagatik edo modu zuzenean ez erabiltzeagatik.
- d) Lokalak ez betetzeagatik eskatzen zaizkion ezaugarriak edo titularrak adierazitako helburuetarako ez erabiltzeagatik.
- e) Lizentzia emateko oinarritzat hartu ziren inguruabarrak aldatzeagatik.
- f) Ordenantza fiskalak emandako lizentziari ezarritako prezio publikoak ez ordaintzeagatik.
- g) Orokorrean, Ordenantza honek titularrari ezartzen dizkion obligazio horietako edozein ez betetzeagatik.

Lizentzia baliogabetzeko kontraesaneko espedientea irekiko da interesdunak esan beharrekoa entzunda; ebazpena lizentzia eman zuen organoak emango du.

#### II. Kapituluua. APARKATZEKO LEKUAK GORDETZEA.

##### 45. art.- **Aparkatzeko lekuak gordetzea.**

Aurretik bidezkoa den espedientea izapidetuta, aparkatzeko lekuak gordetzeko lizentziak eman daitezke. Erreserba horiek aparkatzeko debeku orokorra ekarriko dute lizentziaren titularraren onurarako.

Edukiontzia jartzeko edo obrak egiteko aparkalekuak hartu ahal izateko, eskatzen den epe horretarako emango dira lizentziak, eta edozein kasutan ere, lizentziaren gehieneko iraupena obra-lizentzian aurreikusitakoa izango da.

Halako erreserba, aldeztatik tasa ordainduta, honako hauei eman ahal izango zaie:

- Hotelei, etxabe komertzialetik sarbidea eta harrera-lekua izan eta jendearentzat egunaren 24 orduetan zabalik daudenei, ibilgailuak sartzeko eta irteteko erraztasunak izan ditzaten. Gehienez ere, hiru aparkalekurako baimena emango litzateke.
- Jende asko biltzen duten lokalei, sarbideak eta larrialdietarako irteerak gorde ahal izateko.
- Segurtasun kolektiboaren bermeak hala egitea gomendatzen dien eraikinei.
- Osasun-zentroei, larrialdietarako ibilgailuen eta gaixoen sarbidea erraztearren.
- Gasolioa deskargatzeko.
- Obretako edukiontzia jartzeko.
- Obrak egiteko.
- Mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuentzako.

- Orain arte azaldu direnen antzeko beste edozein jardueratarako, baldin eta derrigorrezkoa zaion lizentzia badu.
- Larrialdietarako sarbideak edo irteerak bermatzeko lizentziak direnean, erreserba aparkaleku gisa erabiliz gero, erreserba kentzeko espedienteari hasiera emango litzaioke.
- Mugikortasun urriko pertsonentzat ere gorde daitezke aparkaleku batzuk; honako artikuluan honen baldintzak biltzen dituzten pertsonak erabil ahalko dituzte:

Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako lekuen kasuan, etxetik gertu aparkatzeko lekua eman daiteke, aurretik Udaltzaingoak txostena eginda. Pertsona horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

.- Mugikortasun baremoa 10ekoa izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailak aitortutakoa. Eskaera egiten duena ez bada ibilgailuaren ohiko gidaria, etxebizitza berean bizi beharko dira biak. Ez da aparkalekurik gordeko familia-unitateak etxetik gertu garaje-plaza bat duenean, betiere irisgarritasun-baldintzak betetzen baditu.

.- Erreserbak atzera bota daitezke edo lekuz aldatu interes orokorrak hala eskatuz gero.

## VI. TITULUA. ZIGORTZEKO PROZEDURA.

### KAPITULU BAKARRA. ESPEDIENTEEN INSTRUKZIOA.

#### 46. artikulua. **Instrukzio- eta zehapen-organo eskudunak.**

Ordenantza honetan araututako arau-hausteengatik hasitako espedienteen instrukzioa udal organo eskudunek egingo dute, eta amaitu ondoren, Alkatetza-Lehendakaritzak bidezkoa den ebazpena emango du.

#### 47. artikulua. **Espedienteak Administrazio eskudunari helaraztea.**

Udal eskumenekoak ez diren zehapenei dagozkien arau-hausteak, trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko ardura duten udal agintaritzaren agenteek salatuko dituzte eta, jarraian, trafikoaren alorreko zehapen-espedienteak izapidetzen dituzten organoek Administrazio eskudunari helaraziko dizkiote.

#### 48. artikulua. **Gidatze-baimenak etetea eta erretiratzea.**

Diru-zehapenarekin batera gidatze-baimena etetea, baimena erretiratzea edo/eta puntuak galtzea ekar dezaketen arau-hausteengatik hasiera emandako zehapen-espedienteak —eta, betiere, udalaren eskumenekoa den zehapena dakarren jokabide baten ondorioz sortu izan badira— horretarako eskumena duen Agintaritzari helaraziko zaizkio, gidatze-baimena eteteko, erretiratzeko edo/eta puntuak kentzeko zehapena aplikatzeko ondorio bakarrarekin.

#### 49. artikulua. **Zigor- ebazpenen kontrako errekurtsok.**

Udal Agintaritzak emandako zehapen-espedienteen ebazpenen kontra, bidezkoak diren errekurtsok sar daitezke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen eta gai edo arlo honi buruzko legeria bereziaren arabera.

#### 50. artikulua. **Arau-hausteen preskripzioa.**

Arau-hausteen zehapena ezartzeko ekintzak hiru hilabetera preskribatuko du arau-hauste arinentzat, sei hilabetera astunentzat eta urtebetera oso arau-hauste astunentzat. Edozein jarduera administratibok preskripzioa eten egingo du, baldin salatuak haren berri badu edo bere identitatea edo bizilekua jakitera bideratua bada edo jakinarazpena indarrean dagoen legeriaren arabera egin bada.

Zehapenek, irmotasuna eskuratzen dutenean, urtebetera preskribatzen dute.

Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, isunak egikaritzera zuzendutako administrazio-jardunek eta betetzera derrigortua dagoenari jakinarazitakoek eten egingo dute preskripzioa.

#### 51. artikulua. **Agintaritzaren Agenteen betebeharrak.**

Udaltzainek, zeinak agintaritzaren agentetzat hartzen diren, Ordenantza honi egiten zaizkion arau-haustek eragotzi behar dituzte eta hautematen dituztenak salatu.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira honen kontra doazen Ordenantza, Erregelamendu edo Udal Bando guztiak, eta bereziki honako hauek:

Hiri-izaerako bide publikoetako erabilerak, zirkulazioa eta bide-segurtasuna arautzen duen Ordenantza, 1996ko abenduaren 19ko udalbatzaren erabakiz onartua eta 1996ko otsailaren 27ko Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratua, 21. alean.

Eraikin eta orubeetara ibilgailuak sartzeko bide publikoko pasabideak arautzen dituen Ordenantza, 1996ko urtarrilaren 26ko udalbatzaren erabakiz onartua eta 1996ko otsailaren 27ko Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratua, 41. alean.

#### AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratzen denetik 15 egunera sartuko da indarrean.

Alkatetzari berriazko ahalmena ematen zaio Ordenantza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, eta beharrezkoa bada Ordenantza honen aginduetan ikus daitezkeen hutsuneak betetzeko eta hobeto aplikatzeko beharrezkoak eta komenigarriak diren xedapenak egiteko.

Eibarren, \_\_\_\_\_

ALKATEA

## I ERANSKINA

*Espaloia:* Errepide baten ertza, ia beti galtzada baino altxatuagoa eta bereziki oinezkoak ibiltzeko izaten dena.

*Bizikleta-espaloia:* Bizikletaz ibiltzeko bidea, espaloi gainean seinalizatutakoa.

*Bizikleta:* Bi gurpileko ibilgailua, gainean doan pertsona/pertsonen esfortzu muskularraren bidez mugiarazia, bereziki pedal edo biradera bidez.

*Erreia:* Motozikletak ez diren ibilgailu-ilara bat hartzeko adina zabalera daukan zirkulazio-banda luzetarakoa. Bide-markak eduki ditzake luzetara edo ez.

*Bidegorria:* Bizikletak ibiltzeko eratzen den bide berezia, noranzko bakarrekoa edo bikoia.

*Autobus-erreia.* Garraio publikoaren zirkulaziorako gordetzen den erreia.

*Gordetako erreia:* Ibilgailu jakin batzuei bakarrik uzten zaie zirkulatzeko erreia horretatik, seinalearen arabera.

*Ziklomotorra:* Honako ibilgailu hauek dira ziklomotorrak:

- *Bi gurpileko ibilgailua, 50 cm<sup>3</sup>-ko edo gutxiagoko motorra duena barne-errekuntzakoa bada, eta fabrikazioz gehienez 45 kilometroko abiadura hartzen duena.*
- *Hiru gurpileko ibilgailua, 50 cm<sup>3</sup>-ko edo gutxiagoko motorra duena barne-errekuntzakoa bada, eta fabrikazioz gehienez 45 km/h-ko abiadura hartzen duena*
- *Lau gurpileko ibilgailua, hutsik dagoela 350 kilotik gorako masa ez duena. Ibilgailu elektrikoaren kasuan baterietako masa baztertuta, abiadura ezingo da izan 45 km/h-tik gorakoa eta motorrak 50 zentimetro kubikoko edo hortik beherako zilindrada izango du eztanda-motorretan edo, gainerako motorren kasuan, gehieneko potentzia 4 kw-koa edo hortik beherakoa.*

*Zirkuitu berdea:* Bide publiko bat da, oinezkoek eta bizikletek bakarrik erabil dezaketena.

*Aparkatzea:* Geratuta edo gerarazita ez dagoen ibilgailu bat nahita ibilgetzea.

*Geratzea:* Ibilgailu bat ibilgetzea larrialdi batengatik, zirkulazioaren premiek hala eskatuta edo erregelamenduko aginduren bat betetzeko.

*Pasabide-lizentzia:* Lokal edo lursail partikularren sarbideetan ibilgailuak aparkatzen ez uzteko seinaletarako ematen den lizentzia.

*Motozikleta:* Bi gurpileko automobila, sidekarduna edo gabea —motorrari aldamenean itsatsitako bidaiari-lekua da sidekarra—. Hiru gurpileko automobila ere izan daiteke.

*Geralekua edo geltokia:* Ibilgailu bat minutu bitik behera nahita ibilgetzea; gidariak ezin du bertan utzi eta joan.

*Oinezkoa:* Gidari izan gabe, Ordenantza honek aipatzen dituen bide edo lurretatik oinez dabilen pertsona. Oinezkoak dira, halaber, ume-kotxea edo gurpil-aulkia, edo motorrik gabeko eta neurri txikiko beste edozein ibilgailu bultzaka edo herrestan daramatenak, bi gurpileko txirrindua edo ziklomotorra oinez daramatenak, eta motordun nahiz motorrik gabeko gurpil-aulkian pausoaren abiadan ibiltzen diren pertsonak.

*Garraio berezia:* Ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zama zatiezinagatik ibilgailuei buruzko araudian ezarritako gehieneko masak eta neurriak gainditzen dituzten garraioak.

*Ibilgailua:* Ordenantza honek hizpide dituen bide edo lurzoruetan zirkulatzeko gauza den aparatua edo artefaktua.

*Bidegorria:* Bizikleten trafikorako bereziki egokitutako bidea, dagozkion seinale bertikalak eta horizontalak dituen eta duen zabalerari esker ibilgailu horiei segurtasunez pasatzen uzten diena.

*Oinezkoen gunea:* Hiri-eremuaren barruan oinezkoak bakarrik ibiltzeko gunea. Definizio horren barruan sartzen dira bai espaloia, bai pasealekua.

## II. eranskina. **Oinezkoen guneak.**

### **Oinezkoen guneak.**

- Toribio Etxebarria kalea. Ibilgailuak aparkatzen eta zirkulatzeko utziko da astelehenean zapatuta. Orduetara: 09:00-13:00. Orduetara horretatik kanpo oinezkoen gunea izango da.
- Untzaga plaza, Fermin Calbetón kalea eta Plaza Berria: zapatutik -15:00- domekara bitartean -24:00- oinezkoen gune hartuko dira. Zuloagatarren kalea eta Julian Etxebarria kalea ere gehi daitezke oinezkoen gune diren aipatutako kale-zerrenda horretan, bide-azpiegiturak horrela egiten uzten duenean. Halaber, egun berezietan oinezkoen gune izango dira, hala nola, Aratosteetan, Aste Santuan, kirol-probak edo kultura-jardunak egiten direnean, herriko jaietan...
- Iñaki Goenaga kalea oinezkoentzako gune izango da astegunetan 19:30etik hurrengo eguneko 7:30era eta jaiegunetan eta asteburuetan 0:00etatik 24:00etara (GAO, 86. zk, 2013-5-8).





III. eranskina. **Zigorren taula.**

Arau-haustearen kontzeptua.	Legea edo Ordenantza.	Artikulua.	Mailaketa
-----------------------------	-----------------------	------------	-----------

Lege-erreferentziak.

1428/03		Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra.
7/2001		Aseguru-kontratuko Legea.
772/97	1598/04	Gidarien Erregelamendua.
339/1990	19/2001	Trafiko Legearen Erreforma
2822/97		Ibilgailuen Erregelamendua

Arau-haustea egiten den egunetik hamar eguneko epe barruan, norbere borondatez ordainduz gero, % 50aren deskontua izango du.

**MI: Mailaketa L: ARINA G: ASTUNA. MG: OSO ASTUNA.**

<b>Arau-haustearen kontzeptua.</b>	<b>Legeria</b>	<b>Art.</b>	<b>MI.</b>
Zirkulazioa oztopatuz aparkatzea.	1428/03	91	<b>G.</b>
Ibilgailua ez mugitzeko hartu behar diren neurriak hartzeke aparkatzea.	1428/03	92.3	<b>L</b>
Gainerako erabiltzaileentzat arriskutsua den moduan aparkatzea.	1428/03	91	<b>G</b>
Beste ibilgailu batzuei pasabidea eragotzita aparkatzea.	1428/03	91.a	<b>G</b>
Behar bezala geldituta edo aparkatuta dagoen beste ibilgailu bati zirkulaziora itzultzea eragozteko moduan aparkatzea.	1428/03	91.b	<b>G</b>
Animaliak zein pertsonak eraikin batera sartzea nahiz bertatik ateratzea eragozteko moduan aparkatzea.	1428/03	91.c	<b>G</b>
Behar bezala seinaleztatutako pasabide batean aparkatzea, ibilgailuen irteera edo sarbide normala oztopatuz.	1428/03	91.c	<b>G</b>
Desgaitasuna dutenentzako beheratutako pasabideen erabilera normala oztopatuz aparkatzea.	1428/03	91.d	<b>G</b>
Erdibitzaileetan, oinezkoen babesgunean edo trafikoa bideratzeko beste elementu batzuen gainean aparkatzea.	1438/03	91.e	<b>G</b>
Seinaleak baimendutako biraketa eragotziz aparkatzea.	1428/03	91.f	<b>G</b>
Bigarren ilaran aparkatzea (gidaria barruan ez dela).	1428/03	91.h	<b>G</b>
Seinaleztatuta eta mugatuta dagoen garraio publikoko geltokian aparkatzea.	1428/03	91.i	<b>G</b>

Larrialdi- eta segurtasun-zerbitzuentzat bereziki gordetako lekuetan aparkatzea.	1428/03	91.j	<b>G</b>
Lehentasunezkotzat sailkatutako bide publikoan debeku-seinalea jarrita duten aldeetan aparkatzea.	1428/03	91.k	<b>G</b>
Galtzada erdian aparkatzea.	1428/03	91 L	<b>G</b>
Galtzada ertzean paraleloki ez geratzea edo aparkatzea, dagoen seinaleak uzten duenean salbu.	1428/03	92.1	<b>L</b>
Dagoen lekua txarto erabilita aparkatzea.	1428/03	92.2	<b>L</b>
Gidariak ibilgailua uztea, ibilgailua martxan ez jartzeko hartu behar dituen neurriak hartu barik.			
Motorra geratzea eta martxan jartzeko sistema deskonektatzea.			
Esku-frenoa ipinita uztea.			
Lehen martxa ipinita lagatzea aldapan gora, eta atzera-martxa aldapan behera.			
Kaltzoak jartzea adierazitako kasu horietan.	1428/03	92.3	<b>L</b>
Ikuspen gutxiko sestra-aldaketetan eta bihurguneetan geratzea, horrelako lekuetatik gertu eta tunel, azpiko pasabideetan eta tunel seinalearen eraginpean dauden bide-zatietan.	1428/03	94.1	<b>G</b>
Trenbide-pasaguneetan geratzea.	1428/03	94.1.b	<b>G</b>
Txirrindularien eta oinezkoen pasabideetan geratzea.	1428/03	94.1.b	<b>L</b>
Bidegurutzeetan eta bidegurutzeetatik gertu geratzea, beste ibilgailu batzuei biraketa egitea zailtzen bazaie.	1428/03	94.1.d	<b>G</b>
Seinaleak ikusten ez uzteko moduko lekuetan geratzea, erabiltzaileei eraginez eta maniobrak eginaraztera behartuz.	1428/03	94.1f	<b>G</b>
Herriko garraio publikoarentzat bakarrik gordetako aparkaleku eta geralekuetan geratzea.	1428/03	94.1.i	<b>G</b>
Desgaitasuna dutenentzako seinaleztatutako tokietan eta oinezkoentzako igarobideetan geratzea.	1428/03	94.1.j	<b>L</b>
Zamalanetarako seinaleztatutako guneetan aparkatzea.	1428/03	94.2.c	<b>G</b>
Desgaitasuna dutenek bakarrik erabiltzekoak direla seinaleztatutako lekuetan aparkatzea.	1428/03	94.2.d	<b>L</b>
Espaloi gainean, igarobide gainetan eta oinezkoen pasabide izatekoak diren beste toki batzuetan aparkatzea.	1428/03	94.2.e	<b>L</b>
Zuzen seinaleztatutako pasabideetan aparkatzea, zati osoa edo zati bat hartuta.	1428/03	94.2.f	<b>G</b>
Bigarren ilaran aparkatzea.	1428/03	94.2.g	<b>G</b>
Sigi-saga erako marka horiekin seinaleztatutako gunean aparkatzea.	1428/03	171.a	<b>L</b>

Luzetara egindako marka hori jarraitu batekin seinaleztatutako gunean geratzea.	1428/03	171.b	<b>L</b>
Luzetara egindako marka hori jarraitu batekin seinaleztatutako gunean aparkatzea.	1428/03	171.b	<b>L</b>
Udaltzaingoko agenteei ez obeditzea, eta irainka, begirunerik erakusteke edo mehatxuka aritzea.	U.O	5.4	<b>MG</b>
Aparkatzeko baimenduta edo gordetako leku batean aparkatzea.	U.O	5.9	<b>G</b>
Bide publikoan edukiontziak, mahaiak, kioskoak, saltokiak edo edozein oztopo, aurretik udal baimena edukitzeke.	U.O	6.1	<b>L</b>
Bide publikoan edukiontziak, mahaiak, kioskoak, saltokiak edo edozein oztopo jartzea, horretarako emandako baimenean ezarritako arauen arabera behar bezala babesteke, seinaleztatzeke eta argitzeke.	U.O	6.1	<b>G</b>
Kale publikoan obrak eta lanak egitea udal lizentziarik gabe.	U.O	6.5	<b>G</b>
Bide publikoan egiten diren obrak eta lanak modu zuzenean ez seinaleztatzea, balizatzea eta babestea.	U.O	6.5	<b>G</b>
Ez aldatzea edo erretiratzea trabak, seinaleak, balizak edo bestelakoak, horiek jartzeko izan zen oztopoa desagertu edo aldatu bezain pronto.	U.O	6.7	<b>G</b>
Ez jartzea altzariak eta gauzak jasotzeko edukiontziak, obra-hondakinenak, etxeko zaborrenak edo bestelakoak, Udaleko organo eskudunak bide publikoan jartzeko zehaztu dituen lekuetan.	U.O	6.8.1	<b>L</b>
Ez edukitzea eusteko mekanismorik, lekuz aldatzeko gurpilak dituzten edukiontziak nahigabe lekuz alda ez daitezen.	U.O	6.8.2	<b>L</b>
Ez seinaleztatzea edukiontziak behar bezala, bideen egoerak hala eskatuta, zirkulazio-erreetan aldi baterako jartzea derrigorrezkoa egiten denean.	U.O	6.8.3	<b>G</b>
Seinaleak jartzea aurretik udal baimenik edukitzeke.	U.O	7.2	<b>L</b>
Publizitatea jartzea zirkulazio-seinaleetan edo horien ondoan .	U.O	7.4	<b>L</b>
Markesinak, kartelak, iragarkiak edo instalazioak jartzea, erabiltzaileei semaforoak eta seinaleak ikusten uzten ez dizkietenak edo euren arreta galaraz dezaketenak.	U.O	7.5	<b>G</b>
Espaloirik ez duen kale batean geratzea, ibilgailuaren eta gertuen dagoen fatxadaren artean metro bateko distantzia uzteke.	U.O	8.1	<b>L</b>
Seinaleak debekatutako leku batean geratzea.	U.O	8.2.1	<b>L</b>
Trafiko-seinaleak ikustea oztopatzen den leku batean geratzea.	U.O	8.2.2	<b>G</b>

Larrialdi-zerbitzuetarako gordetako lekuan geratzea.	U.O	8.2.3	<b>G</b>
Segurtasun-zerbitzuko ibilgailuentzat gordetako lekuan geratzea.	U.O	8.2.3	<b>G</b>
Baimendutako ibilgailuentzat gordetako lekuan geratzea.	U.O	8.2.3	<b>L</b>
Lehentasunezkotzat deklaraturako bideetan, trafiko-intentsitate handikoetan edo arreta berezikoetan geratzea, baimendutako lekuetan izan ezik.	U.O	8.2.4	<b>G</b>
Ibilgailuen edo jendearen zirkulazioan eragozpenak sortzen diren lekuetan geratzea.	U.O	8.2.5	<b>G</b>
Aterpe, irlatxo, erdibitzaile, babes-eremu eta trafikoa seinaleztatzeko gainerako elementuetan geratzea.	U.O	8.2.6	<b>L</b>
Ibilgailuentzako sarrera-irteera behar bezala seinaleztatua egon eta dagokien pasabidea duten eraikinetarako sarbidea oztopatuz geratzea.	U.O	8.2.7	<b>L</b>
Espaloi, pasealeku, oinezkoen esparru eta lorategi gainetan geratzea.	U.O	8.2.8	<b>L</b>
Bidegurutzetan geratzea beste ibilgailu batzuei biratzea zailduz.	U.O	8.2.9	<b>G</b>
Zubietan eta pasabide goratuetan edo horien azpian geratzea.	U.O	8.2.10	<b>L</b>
Autobus-geltokietan geratzea.	U.O	8.2.11	<b>L</b>
Zirkulazio martxaren kontrako bidean geratzea.	U.O	8.2.12	<b>L</b>
Zoruan markaturako perimetrotik kanpo aparkatzea.	U.O	9.1	<b>L</b>
Espaloitik ahalik eta gertuen ez aparkatzea.	U.O	9.1	<b>L</b>
Zirkulazio martxaren kontrako bidean/noranzkoan aparkatzea.	U.O	9.1	<b>L</b>
Geratzeko debekua dagoen lekuetan aparkatzea.	U.O	9.5.1	<b>L</b>
Bigarren lerroan aparkatzea, nahiz eta lehen lerroa traba batekin edo/eta babes-elementu batekin okupatuta badago ere.	U.O	9.5.2	<b>G</b>
Zamalanetarako lekuan, baimenik ez duen ibilgailu bat aparkatzea.	U.O	9.5.3	<b>G</b>
Zamalanetarako lekuan, baimenik ez duen ibilgailu bat aparkatzea eta baimendutako ibilgailuen erabilera eragozteak.	U.O	9.5.3	<b>G</b>
Zeharka aparkatzea, horretarako aukera ematen duen seinalerik ez dagoenean.	U.O	9.5.9	<b>L</b>
Lerroan aparkatzea, dagoen seinaleak zeharka aparkatzeko lekua dela dioenean.	U.O	9.5.10	<b>L</b>
Leku berean, hilabete bat baino gehiagoan aparkatuta edukitzea.	U.O	9.5.12	<b>L</b>
Lorategietan, heskaietan, arboladietan, parkeetan eta hiria txukuntzeko jarritako bidearen beste toki batzuetan aparkatzea.	U.O	9.5.13	<b>L</b>
Bide publikoetan erremolkeak aparkatzea ibilgailu traktoretik edo motorretik bananduta; edo 3500 kilotik gorako BGM duten autobusak, traktoreak, karabanak edo ibilgailuak, berariaz baimendutako eran, lekuetan eta aldietan izan ezik.	U.O	9.5.14	<b>L</b>

Udalerriko bide publiko guztietan, merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak aparkatzea.	U.O	9.5.15	<b>G</b>
Udalerriko bide publiko guztietan, usain txarra edo/eta enbarazu egiten duten ibilgailuak, animaliak eta merkantziak garraiatzeko ibilgailuak aparkatzea.	U.O	9.5.15	<b>L</b>
Aurreko ataletan sartuta egon ez arren, ibilgailuen trafikoa eta oinezkoen ibilbidea modu larrian oztopatzen duten edo arriskutsuak diren lekuetan aparkatzea.	U.O	9.5.16	<b>G</b>
Seinaleztapenez edo arauz geratzeko debekua dagoen lekuetan aparkatzea.	U.O	9.5.16	<b>L</b>
Baimendutako ibilgailu bat oinezkoen gunean aparkatzea, baimendutako ordutegiaz aparte.	U.O	10	<b>L</b>
Bidaerien garraio publikorako ibilgailu bat, bidaiariak hartzeko edo lagatzeko behar dena baino denbora gehiagoan egotea geltoki batean.	U.O	13	<b>L</b>
Zamalanetarako lekuan, horretarako baimenik ez duen ibilgailu bat aparkatzea.	U.O	14.6	<b>L</b>
Zamalanak baimendutako orduetatik edo/eta lekuetatik aparte egitea, bidearen auzokoei edo erabiltzaileei enbarazu eginez.	U.O	14.7	<b>L</b>
Zamalanak egitea geratzea debekatuta dagoen tokietan.	U.O	14.8	<b>L</b>
Zamalanak egitea oinezkoen edo autoen ibilbidea oztopatuta edo zailduta, baita pasabideetako sarbideetan ere.	U.O	14.9	<b>G</b>
Zamalanak egitea gauzak lurrian utzita.	U.O	14.10	<b>L</b>
Zamalanak egitea zaratarik ez ateratzeko hartu beharreko neurriak hartzeke.	U.O	14.10	<b>G</b>
Zamalanak egitea erabilitako aldea garbi uzteke.	U.O	14.10	<b>L</b>
Zamalanak egitea, baina ez espaloitik gertuen dagoen aldetik.	U.O	14.11	<b>L</b>
Zamalanak egitea lanak ahalik eta azkarren amaitzeko baliabideak erabiltzeke.	U.O	14.11	<b>L</b>
Zamalanak egitea, lanak egiteko dagoen gehieneko denbora gaindituz.	U.O	14.11	<b>L</b>
Zamalanak egitea behar bezala seinaleztatu barik, oinezkoentzat edo ibilgailuentzat arriskuren bat egonda.	U.O	14.11	<b>G</b>
Hartu beharreko neurriak ez hartzea hondarrak, legarrak edo hartxintzarra edo lurrera jausteko modukoa den beste edozein material mota garraiatzen duten ibilgailuek aldean daramatena lurrera ez erortzeko .	U.O	14.13	<b>L</b>

Zama jausiz gero, bidea ez garbitzea.	U.O	14.13	<b>G</b>
Zarata ateratzea azelerazio zabarrak, ihes-tutu aldatuak edo kaltetuak erabilia edo antzeko beste arrazoiren batengatik edo seinale akustikoak egoki ez den moduan erabiltzea.	U.O	17.1	<b>L</b>
Ibilgailu automobileren eta ziklomotorrek duten gehieneko zarata-maila 5 dezibel baino gutxiagoan gainditzea.	U.O	17.5	<b>L</b>
Ibilgailu automobileren eta ziklomotorrek duten gehieneko zarata-maila 5 dezibelek 10 dezibelera bitartean gainditzea.	U.O	17.5	<b>L</b>
Ibilgailu automobileren eta ziklomotorrek duten gehieneko zarata-maila 10 dezibel baino gehiagoan gainditzea.	U.O	17.5	<b>L</b>
Bizikletak, patinak, monopatinak eta trizikloak oinezkoen esparrutik zehar ibiltzea oinezkoen lehentasuna errespetatzeke, arriskua sortuta edo abiadura moteltzeke.	U.O	17.6	<b>L</b>
Bizikleta, ziklomotor eta beste edozein ibilgailu-motatako gidariak agintaritzaren agenteek emandako aginduak ez betetzea.	U.O	17.9	<b>L</b>
Udal agintaritzaren berariazko baimenik gabe, herriko bide publikoetatik pisu edo neurri handiko ibilgailuak zirkulatzea .	U.O	18	<b>G</b>
Herri barrura ez datozen kamioiak herriko bideetatik zirkulatzea.	U.O	18	<b>L</b>
Gidariarena kontuan hartuta bederatzi jarleku baino gutxiago dituzten ibilgailuekin lineaz kanpoko garraio-zerbitzua eskaintzea, udal baimenik edukitzeke.	U.O	19.1	<b>G</b>
Gidariarena kontuan hartuta bederatzi jarleku baino gehiago dituzten ibilgailuekin lineaz kanpoko garraio-zerbitzua eskaintzea udal baimenik edukitzeke.	U.O	19.2	<b>G</b>
Lineaz kanpoko garraio-zerbitzua eskaintzea baimena iraungita.	U.O	19.4	<b>G</b>
Lineaz kanpoko garraioko geltokietan bidaiariak utzi edo jasotzeko behar dena baino denbora gehiagoan egotea, linearen hasiera edo amaiera lekutat seinaleztatutako lekuetan izan ezik.	U.O	19.5	<b>G</b>
Taxi-zerbitzurako diren garraio publikoko geralekuetan egotea, bidaiarien zain egoteke.	U.O	19.5	<b>G</b>
Bide publikoetan beste erabiltzaileei traba edo arriskua eragin diezaieketen jokoak edo jolasak burutzea.	U.O	20.1	<b>L</b>
Edozein barrunbe edo zerbitzutara sartzeko, banan-banako ilaran eraikinetako fatxaden luzetara jarrita, ilarak ordenaz ez eratzea, galtzadara pasatzeke eta etxebizitzetarako eta dendetarako sarbideak libre utzita.	U.O	20.2	<b>L</b>

Ilara sortu duen jardunaren arduradunek ordena zaintzeko zerbitzurik ez izatea, gorabeherak aurreikusteko edo bide zein kale-erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko.

U.O

20.2 L